

Finantza Hezkuntzako Plana 2018-2021

BANCO DE **ESPAÑA**
Eurosistema



FINANTZA HEZKUNTZAKO PLANA 2018-2021

plan de **educación
financiera**



BANCO DE **ESPAÑA**
Eurosistema

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak eta Espainiako Bankuak
Internet sarearen bitartez hedatzen dituzte beren argitalpen gehienak,
zehazki, honako helbide hauen bidez: www.cnmv.es eta www.bde.es.

Argitalpen horretako edukiak erreproduzitzeko baimena ematen da,
betiere haren jatorria aipatzen bada.

© CNMV eta Espainiako Bankua, Madril, 2018

Lege-gordailua: M-20368-2018

Inprimatzailea: Zerbitzu Osagarrien Unitatea, Espainiako Bankua

EDUKIA

AURKEZPENA (oo. or.)

HISTORIARI BURUZKO OHAR TXIKI BATZUK (oo. or.)

HEZKUNTZA PLANA, BEGIRADA BATEAN (oo. or.)

FINANTZA HEZKUNTZAKO
PLANAREN INSPIRAZIO-PRINTZPIOAK (oo. or.)

HEZKUNTZA PLANAREN HELBURU NAGUSIAK,
2018-2021 ALDIAN (oo. or.)

2013-2017 ALDIA AZTERTZEA (oo. or.)

2018-2021 ALDIAN BETETZEKO
HELBURUAK ETA EKINTZAK (oo. or.)

ONDORIOAK (oo. or.)

ERANSKINAK (oo. or.)

AURKEZPENA

Pertsonen eta enpresen arteko finantza-harremanak eta finantza-produktu eta -zerbitzuak berak konplexuak izaten dira. Horrez gain, teknologia berrietan oinarritutako finantza-arloko negozio-ereduak (*fintech*) direla-eta, gero eta nabarmenagoa da herritarren finantza-hezkuntza zaindu behar dela.

Gaur egungo ekonomia- eta gizarte-ingurunean finantza-hezkuntza funtsezko elementua da finantza-zerbitzuen erabiltzaileen egonkortasuna eta babesa ziurtatzeko; hortaz, erakunde publiko zein pribatuetatik bultzatu behar da, finantza-eragile eta -erakundeen laguntzarekin batera.

Behar hori aintzat hartuta, duela bederatzi urte Espainiako Bankuak eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak (CNMV) konpromisoa hartu zuten, finantza-hezkuntzari buruzko lehen proiektu orotarikoa herrialdean garatzeko. Ondoren, Administrazio Orokorreko beste erakunde batzuek ere parte hartu zuten proiektuan, hala nola Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiak eta Aseguruaren eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak.

Urteotan ezarri ditugu hasitako hainbat ekintza garatzen jarraitzeko oinarriak. Helburuak herritarren finantza-kultura areagotzea eta herritarren ohitura eta jokabideak hobetzea dira.

Jakitun gara lan zaila egiten ari garela, eta, hurrengo belaunaldietako herritarrek finantza-zerbitzuak erabiltzean izaten dituzten jokabideak behatu arte, ezin izango ditugula emaitzak aztertu; baina, lanaren zailtasunaz jabetu arren, prest eta gogotsu gaude bide hori urratzen jarraitzeko eta duela zenbait urte hasitako finantza-hezkuntzaren arloko estrategia nazionalaren hurrengo urratsa egiteko. Estrategiak herritarren ohiturak aldatzea lortzen baldin badu, arrakastatsutzat joko dugu, herritarrak gai izango baitira beren erabakiak era arrazoituan eta beren egoeren arabera hartzeko.

Sebastián Albella
Balore Merkatuaren Batzorde
Nazionaleko presidentea

Luis M. Linde
Espainiako Bankuko gobernadorea

HISTORIARI BURUZKO OHAR TXIKI BATZUK

Edozein herrialdetako herritarrek finantza-kultura hobea izan dezaketela pentsatzen da, oro har. Arazo hori dagoela jakitun izanik, Ekonomiako Lankidetzak eta Garapenerako Erakundeak, Nazioarteko Diru Funtsak, Balore Komisioak erregulatzeko Nazioarteko Erakundeak (IOSCO) eta Europako Batzordeak, besteak beste, kideei gomendatu diete finantza-arloko prestakuntza-programak bultzatzen, herritar guztiei edota herritarren segmentu espezifiko batzuei eskaintzeko.

Testuinguru horretan, gobernuek finantza-arloko estrategia nazionalak garatuz erantzun dute. Gaur egun, gutxienez, 59 herrialdetan¹ —Espainian ere bai— finantza-arloko hezkuntza-estrategia nazionalak diseinatu edo jada ezarri dira (ikus I. eranskina), Ekonomiako Lankidetzak eta Garapenerako Erakundearen oinarriari eta gomendioei jarraituz. Espainian 2008an ekin genion ibilbide horri, Espainiako Bankuak eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak finantza-arloko hezkuntza sustatzeko estrategia nazionala bultzatzeko konpromisoa hartu zutenean.


Proiektuaren gidalerroak «Finantza Hezkuntzako Plana 2008-2012» deituriko planean jaso ziren. Plan horretan helburu hau ezarri zen: herritarrei bere egoera pertsonalaren, familia-egoeraren, beharren eta asmoen arabera finantza-erabakiak hartzen eta arriskuak hobeto kudeatzen laguntzea, finantza-sisteman konfiantza handiagoa edukitzeko eta, horren ondorioz, finantza-sistemaren egonkortasuna ere areagotzeko.

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak eta Espainiako Bankuak 2013ko ekainean berriro zuten 2008an hartutako konpromisoa, «Finantza Hezkuntzako Plana 2013-2017» deituriko planean bildutako baldintzetan zehaztuta. Horrela, 2008an hasitako ekintzek aurrera jarraitu zuten.

2017ko urriaren 2an, Finantza Hezkuntzaren III. Egunean, erakunde biek lankidetzahitzarmen bat sinatu eta berretsi egin zuten finantza-hezkuntzari buruzko estrategia nazionala 2021. urtea arte garatzen jarraitzeko asmoa. Dokumentu honetan bildu ditugu 2021. urtea arteko strategiaren alderdi nagusiak, hain zuzen ere.

¹ *Ekonomiako Lankidetzak eta Garapenerako Erakundearen iturria.*

FINANTZA HEZKUNTZAKO PLANA, BEGIRADA BATEAN

- SORRERA** 2008an sortu zen, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak eta Espainiako Bankuak bultzatuta eta Ekonomiako Lankidetzaren eta Garapenerako Erakundearen goi-mailako printzipioetan oinarrituta
- XEDEA** Espainiako herritarren finantza-kultura bultzatzea
- HARTZAILEAK** Biztanleria-segmentu guztiak
- BEREIZGARRIA** Marka propioa dauka  finanzas para todos.es
- PARTAIDEAK** 30 erakundek parte hartzen dute, eta askoz ere gehiago atxiki ahalko zaizkio
- WEBGUNEAK** Finantza-hezkuntzari buruzko web-atari hau dauka: www.finanzasparatodos.es
- EDUKIA** Informazio baliagarria, neutroa eta merkataritza-interesik gabeko argibideak
- JARDUERAK** Espainia osoan antolatzen diren prestakuntza-jardunaldietan, lantegietan, hitzaldietan eta mintegietan parte hartzen du
- ZER BULTZATZEN DUEN** Finantza-arloko hezkuntza-programa bat da, eta ikasturte bakoitzean 500 ikastetxek erabiltzen dute

FINANTZA HEZKUNTZAKO PLANAREN INSPIRAZIO-PRINTZPIOAK

OROKORTASUNA Ez du biztanleria-segmenturik baztertzen, eta finantza-produktu eta -zerbitzu guztiak barne hartzen dira.

LANKIDETZA Finantza-gainbegirale biek konpromisoa hartzen dute elkarrekin aritzeko eta beste eragile eta erakunde batzuen parte-hartzea sustatzeko. Zehazki, lankidetzak publiko eta pribatuko ereduak dira.

JARRAIPENA Iraunkorra izateko bokazioa dauka.

ANIZTASUNA Biztanleria-segmentu bakoitzari heldu behar dio, egoera bakoitzaren ezaugarriak, beharrak eta sarbideak kontuan hartuta.

**EZAGUTZAK ETA
ESKURAGARRITASUNA** Aukera eman behar die herritar guztiei informazioa eta berengaitasunak areagotzeko behar dituzten tresnak eskura ditzaten.

**NEURTzea ETA
EBALUATzea** Egindako lana ebaluatu behar da, eraginkortasuna eta hobetze-arloak zehazteko.

KOORDINAZIOA Efikazia eta efizientzia behar dira, ahaleginik ez gainjartzeko.

ERANTZUKIZUNA Agintariei eta erakunde publiko zein pribatuei esker egiten da. Haien beren gain hartzen dute programa egiteko eta bertan ezarritako helburuak betetzeko konpromisoa.

FINANTZA HEZKUNTZAKO PLANAREN HELBURU NAGUSIAK, 2018-2021 ALDIAN

HERRITARREI BEGIRA

Hartzaileak eta hartzaileen finantza-hezkuntzaren beharrak hobeto ezagutzea eta, horren arabera, Finantza Hezkuntzako Planari lotutako mezuak eta komunikazio-kanalak egokitzea, egoera ahulenean dauden herritar-segmentuek ere eskuratu ahal dezaten.

FINANTZA-HEZKUNTZAREN GARRANTZIA

Finantza-hezkuntzaren sustapena indartzea, XXI. mendean gako-gaitasuna eta norberaren askatasuna garatzeko ezinbesteko tresna baita.

ERALDAKETA DIGITALA

Herritarrentzat balioa sortzea, finantza-hezkuntzari lotutako tresnak —gaur egun ditugunak eta etorkizunekoak—, ingurune digital berrietara egokituz eta beste tresna berri batzuk sortuz.

ERAKUNDEEN ARTEKO LANKIDETZA

Hainbat sektoretako erakunde publikoen eta pribatuen parte-hartzea handitzea, finantza-hezkuntza sustatzeko.

2013-2017 ALDIA AZTERTZEA

Talde bat arduratzen da Finantza Hezkuntzako Planaren esparruan egiten diren jarduerak antolatzeaz. Hona hemen taldekideak: Balore Merkatuaren Batzorde Nazionaleko ordezkariak, Espainiako Bankuko ordezkariak, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiko ordezkariak (planeko kide laguntzaile gisa) eta Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiko ordezkariak.

Lantalde horrek aldizkako bilerak izaten ditu planaren garapenari buruz, eta helburuak eta ekintzak zehazten dituzte. Lantaldeak ezartzen dituen ekintzen gauzatzea taldekide zehatz batzuei agintzen zaie, edo, hala dagokionean, proiektu jakin bat egiteko bereziki sortu diren azpitalde batzuei.

Era berean, lantaldea arduratzen da planean parte hartzen duten eragileen arteko lankidetzak koordinatzeaz. Horrez gain, beren sektorearen edota beren xede-hartzaileen ikuspegitik, onuragarriak izan daitezkeen kide laguntzaile berriak gehitzeko aukera aztertzen eta sustatzen du.

2013. eta 2017. urte bitartean, ekintza eta proiektu ugari egin dira. Nabarmentzekoak dira honako hauek, besteak beste:

Finantza-hezkuntzari buruzko ekimenak identifikatzea

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak eta Espainiako Bankuak identifikatu dute Espainian zer jarduera egiten ari diren finantza-arloko hezkuntzan, Ekonomiako Lankidetzak eta Garapenerako Erakundearen gomendio eta gidalerroen arabera². Ildo horretatik, honako hauek dira finantza-hezkuntzaren arloko estrategia nazionalen helburuetako batzuk: lana eta baliabideak ez bikoizteko, eragileen arteko koordinazioa sustatzea; garatutako ekimenen arteko koherentzia bermatzea; eta ekimenen efizientzia eta irismena hobetzea.

Informazioa eskuratzeko, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalaren eta Espainiako Bankuaren arteko hitzarmen bat sinatu duten erakundeei eskatu zaizkie finantza-hezkuntzari buruz garatzen ari ziren programen eta jardueren gainerako datuak.

Erakunde horiek eman duten informazioa aztertuta, honako ondorio hauek atera dira:

- Finantza-erakundeak dira finantza-arloko jardueren kopuru handiena garatzen dutenak. Halaber, fundazioek, beste erakunde batzuekin batera, eta, bereziki, unibertsitate eta erakundeekin batera, ekimen ugari egiten dituzte.
- Erakundeko langileek edo boluntarioek egiten edo garatzen dituzte finantza-hezkuntzaren arloko ekimenak. Haietako % 45ek ez dute horretarako prestakuntza zehatzik jasotzen.

² Ikus «OECD/INFE Guidelines for private and not-for-profit stakeholders in financial education». 2014ko azaroa.

- Ekimenak zenbait biztanleria-segmenturi zuzentzen zaizkie. Hartzaileak, besteak beste, honako hauek dira: unibertsitateko ikasle gazteak, batxilergo ikasleak, DBHko ikasleak, langile autonomoak, gizarte-bazterkeria jasotzeko arriskuan dauden pertsonak, gobernu kanpoko erakundeetako langileak, finantza-sektoreko langileak, erretirodunak eta abar.
- Erakundeek jorratzen dituzten gaiak, batik bat, aurrezkiak, banku-zerbitzuak, banku-produktuak eta norberaren ekonomiaren kudeaketa dira. Era berean, honako gai hauek ere oso interesgarritzat jotzen dira: fiskalitatea, finantza-sektoreko araudia, ekonomiari buruzko azken berriak, etika, araudiak betetzea eta abar.
- Erakundeek askotariko helburuak lortu nahi dituzte finantza-hezkuntzaren gaineko jarduerak garatuz. Helburu batzuk oso antzekoak dira; eta beste batzuk, ordea, oso ezberdinak. Funtsean, helburu hauek izaten dituzte:
 1. Haurren eta gazteen finantza-hezkuntza hobetzea ikastetxeetan.
 2. Zenbait produkturen ezaugarrien gaineko ezagutzak sustatzea edo hedatzea.
 3. Erabiltzaileek hobeto ulertzea banku- eta finantza-zerbitzuak zein -produktuak.
 4. Aurrezkiak sustatzea eta gastua kontrolatzea.
 5. Finantza-merkatuetan espezializatzeko prestakuntza ematea.
- Zuzeneko lantegiak eta ikastaroak dira erakundeek gehien erabiltzen dituzten jarduerak, xede-hartzaileei finantza-hezkuntza emateko. Horrez gain, beste jarduera edo baliabide batzuk ere erabiltzen dituzte, hala nola bideoak, jardunaldiak, azterlanak, telefono mugikorretako aplikazioak, NOOC ikastaroak (iraupen laburreko lineako ikastaroak) eta abar.
- Nabarmentzekoa da ekimenen erdiak gizarte-sareetan argitaratzen direla; Twitter-en, batik bat.

Jardunbide Egokien Kodea egitea, finantza-hezkuntzari buruzko ekimenetan aplikatzeko

Ekimenak zehazteko lanetan egiaztatu genuen finantza-hezkuntzari buruzko ekimenak egiten dituzten erakunde gehienek ez dutela gatazka-interesak ebazteko mekanismorik. Interes-gatazkak, adibidez, merkataritza-jardueraren eta finantza-hezkuntzaren artean sor daitezke. Honako hauek dira identifikatutako mekanismoak, gutxi badira ere: barneko auditoriak, kontrol-batzordeak, erantzukizuna salbuesteko klausulak (hainbat materialetan txertatuta).

Gauzak horrela, balizko interes gatazkarik egon ez dadin, Ekonomiako Lankidetzak eta Garapenerako Erakundeak jokabide-kodeak garatu beharra ezartzen du, finantza-hezkuntzaren arloko ekimenetan aplikatzeko. Kode horien bitartez, finantza-hezkuntzaren kalitatea eta inpartzialtasuna bermatu nahi dira, finantza-hezkuntza finantza-erakundeen eskutik ematen denean.

Kontuan hartuta aipatutako egoera hori, batetik, eta, bestetik, agerikoa dela finantza-hezkuntzako ekimenen garapenari aplikatu ahal zaizkion printzipioak definitu beharra,

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak eta Espainiako Bankuak Finantza Hezkuntzaren Jardunbide Egokien Kodea aurkeztu zieten erakunde laguntzaileei, 2016ko maiatzean.

Ekonomiako Lankidetzaren eta Garapenerako Erakundearen gidalerroak oinarri hartu ziren kode hori egiteko. Hona hemen gidalerroen printzipioak:

- Finantza-hezkuntza ondasun publikotzat hartzea.
- Enpresaren gizarte-erantzukizunaren arloko jardueratzat hartzea finantza-hezkuntza. Izan ere, enpresaren gizarte-erantzukizunaren bidez, gizartearen garapena eta gizartearen onura bilatzen dira, erakunde zehatz baten onura bilatu beharrean.
- Erakunde publikoek finantza-hezkuntza bultzatzeko ekimenak sustatu eta koordinatu behar dituzte, informazio erabilgarria, neutroa eta merkataritza-interesik gabea emateko.
- Nazio-agintariak balizko hutsuneak identifikatu ondoren, hutsuneei aurre egin beharko diete, besteak beste, ekimenen kopuru eskasari, ahaleginen bikoiztasunari, programen ebaluaziorik ezari eta baliabideen erabileraren ustezko efizientziarik ezari.

Kodea 2016ko ekainaren 1ean indarrean jarri aurretik, entzunaldia eman zitzaizkien planean laguntzen zuten erakunde guztiei. Kodea esperientzia aitzindaria izan da, mekanismo mota hori finantza-hezkuntzaren arloko ekimenetan lehenengo aldiz ezarri delako. Finantza-hezkuntzari lotutako jardunbide-kodeak garatzeko estrategia nazionaleraino dagokienez, kasurik antzekoena Portugalekoa da. Portugalen «*Principles for financial education initiatives*» ezarri dituzte, eta sektore publikoak bultzatu ditu³.

Kodean finantza-hezkuntzaren arloko ekimenetan aplikatzeko jardunbideak gomendatzen dira. Xedea izan da Espainiako finantza-erakundeek, irabazi-asmorik gabeko erakundeek (sektoreko taldeek) eta, beste eremu batzuetakoak izan arren, finantza-hezkuntzan interesa duten erakundeek (esaterako, hezkuntza-elkarteek) gida moduan erabil dezaten.

Honako hauek dira Kodearen oinarritzko printzipioak:

1. Finantza-hezkuntza pertsonari eskuratzea.
2. Kalitate handiko finantza-hezkuntza inpartziala sustatzea.
3. Finantza-hezkuntza eta merkataritza-jarduerak bereiztea.
4. Finantza-hezkuntza hartzaileen arabera moldatzea.
5. Finantza-hezkuntza argia, egiazkoa eta zehatza ematea.
6. Ikuspegi orokorra eta isuririk gabea ematea, finantza-hezkuntzaren gaiei buruz.
7. Hizkuntza erraza, pedagogikoa eta egokia erabiltzea, hartzaileen ezaugarriak kontuan hartuta.

³ Horrez gain, Txekiar Errepublikan, Japonian, Indonesiako eta Hegoafrikan ere Jardunbide Kodeak garatu dituzte, baina ekimenak sektore pribatuak bultzatu ditu (ez erakunde publikoek). Kode horiek borondatezkoak dira, eta, Indonesiako ez dira zehatzaileak.

8. Berezko logotipoak eta markak ez erabiltzen saiatzea, irabazi-asmoa duten erakundeak direnean.
9. Behar bezalako prestakuntza duten hezitzaileekin lan egitea.
10. Finantza-hezkuntzaren arloko ekimenetan lortutako emaitzak ebaluatzea.

Kodea www.finanzasparatodos.es webgunean argitaratu da, eta planean parte hartu zuten erakunde laguntzaile guztiei aurkeztu zaie. Erakundeok konpromisoa hartu zuten Kodean bildutako printzipioak betetzeko eta finantza-hezkuntzako estrategien diseinuan erreferentziatzat hartzeko.

Finantza hezkuntzaren arloko ekimenetan aplikatzeko Jardunbide Egokien Kodea II. eranskinean jasota dago.

Finantza Hezkuntzaren Eguna

Finantza Hezkuntzako Planak bultzatu du Finantza Hezkuntzaren Eguna. Hauxe da xedea: urriaren lehen astelehenean herritarrei gogoratzea finantza-kultura garrantzitsua dela, bizitzaren askotariko fasetan topatuko dituzten erronkei aurre egin ahal izateko.

Finantza Hezkuntzako Planean laguntzen duten erakundeek eta elkarteek laguntza ematen dute ekimen hori aurrera ateratzen. Zehazki, egun horretan edo egun batzuetan hainbat jardueratan parte hartzen dute, Estatuan zehar.

Halaber, Finantza Hezkuntzaren Egunean Balore Merkatuaren Batzorde Nazionaleko, Espainiako Bankuko eta Ekonomiako eta Enpresak Babesteko Estatu Idazkaritzako agintari gorenak ekitaldi bat zuzentzen dute. Ekitaldian biltzen dira Espainiako finantza-hezkuntzaren arloko ekimenak egiten dituzten erakundeetako ordezkari nagusiak.

Egun arte, Finantza Hezkuntzaren Eguna hiru aldiz antolatu da, eta harrera ona izan du sustatzaileen, parte-hartzaileen eta hartzaileen ikuspegitik.

Egun horretan egiten diren jarduerak jakinarazteko, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak eta Espainiako Bankuak egun horri buruzko web-orri bat diseinatu dute, espezifikoki (www.diadelaeducacionfinanciera.es). Ekitaldi horren bidez lortu nahi diren helburuak web-orri horretan azaltzen dira; gainera, pertsona fisikoek eta erakunde mota guztiek egun horri lotuta egin dituzten ekimenen berri eman dezakete.

Web-orrian geolokalizazio-sistema bat ezarrita dago, eta ekimenak bilatzen eta aurkitzen laguntzen du. Horrekin batera, ekimenaren ezaugarriak ere azaltzen ditu. Web-orriko atal batean Finantza Hezkuntzaren Egunari buruzko nobedadeak biltzen dira. Beste batean, egun horretan ematen diren sariak azaltzen dira: Finanzas para Todos saria eta Finantza Hezkuntzako Programaren sariak. Jarduketa biak epigrafeetan azalduta daude.

Egun horretan urtero egiten diren askotariko jardueren artean, nabarmentzekoak dira honako hauek:

- Publiko orokorrari zuzenduta dauden lantegiak, honako gai hauek jorratzeko: zorpetzea, txartelen erabilera, etxeko ekonomia, kontu korranteetako jarduketak, banku-zerbitzu mugikorak edo teknologia berrien erabilera.
- Lantegiak, ikastetxeetan, hezkuntza-zentroetan eta lanbide-heziketako ikastetxeetan antolatuta
- Finantza-plangintzari eta aurrezkiak kudeatzeari buruzko ikastaroak
- Irratiko programak
- Finantza-hezkuntzari buruzko web-guneak edo *microsite* guneak abiaraztea
- Azterlan edo artikulu espezializatuak prentsan edo aldizkarietan argitaratzea.
- Kaleko postuak, herritarren zalantzak argitzeko
- Telefono bidezko lineak, baloreen, banku-zerbitzuen eta aseguruaren arloei buruzko kontsultak egiteko
- Lineako hezkuntza-ikastaroak
- Hitzaldiak, unibertsitateetan
- Enpresari txikiei zuzendutako lantegiak
- Lehiaketak, gizarte-sareetan antolatuta
- Hezkuntza-bideoak
- Liburu berrargitalpenak
- Lasterketa solidarioak
- Museoak bisitatzea
- Antzerkia

«Finanzas para Todos» sariak

2016an, Finanzas para Todos sariak sortu ziren, Espainiako finantza-hezkuntzaren arloko ekimenen bikaintasuna eta inpartzialtasuna bultzatzeko eta ekimen horiek era egokian eta efektiboan egitea sustatzeko. Finanzas para Todos sariaren bidez, finantza-hezkuntzaren arloan konpromiso eta arduraldi bikaina bete dituzten erakunde edo pertsona fisikoei aitortzen zaie egindako lana.

Gainera, sari horren bidez, nabarmendu egiten dira Espainian hezkuntza-arloko erreferentziatzat hartu ahal diren ekimenak.

2016an deialdi bakarra egin zen, eta, 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera, Espainian jarduera bat egin zuten pertsona fisiko eta juridiko guztiek parte hartu ahal izan zuten. 2017an, ordea, Finanzas para Todos sariak bi kategoriatan banandu ziren: finantza-hezkuntzaren arloko ekimenen hobereena goraipatzeko saria eta Finantza Hezkuntzako Planaren ezarpena goraipatzeko saria.

Lehen kategorian lehiatu ahal dira planeko erakunde laguntzaileak ez diren pertsona fisiko edo juridikoak, baldin eta finantza-hezkuntzaren arloko ekimenak martxan jarri badituzte, eta gizartean eragin berezia izan badute, edo berritzaileak izateagatik nabarmendu badira.

Bigarren kategorian planeko erakunde laguntzaileak lehiatu ahal dira, baldin eta finantza-hezkuntzako estrategia nazionala sustatzeko edo hedatzeko arloetan egin duten lana nabarmendu bada.

Finantza Hezkuntzako Plana sustatzen duten erakundeetako arduradunek osatzen dute epaimahaia, eta epaimahaia arduratzen da hautagaitzak ebaluatzeaz eta ekimen irabazleak hautatzeaz. Erabakia hartzeko, honako irizpide hauek kontuan hartzen dituzte: ekimenaren originaltasuna eta egindako sormen-lana; edukiak argiak, egiazkoak eta zehatzak diren; emandako informazioaren inpartzialtasuna eta kalitatea; finantza-hezkuntzaren arloko ekimena hartzaileen araberrako egokitasuna; hezitzaileen gaitasunak; eta ekimena ebaluatzeko ezarri diren mekanismoak.

Hauxe da sarien zuzkidura: oroitzapenezko objektu bat, diploma bat eta Espainiako Bankuan kultura-bisita bat egiteko gonbidapena.

2016an, lehenengo aldiz antolatu zenean, ONCE fundazioak irabazi zuen, «Finanzas Inclusivas» deituriko ekimena dela-eta. Ekimen horren bidez, adimen-desgaitasuna eta ikasteko zailtasunak dituzten pertsonen finantza-hezkuntza sustatu nahi zen. Funtsezko helburuak, besteak beste, finantzei buruzko oinarritzko kontzeptuak jakinaraztea, dirua zentzuz erabiltzeko gaitasuna hobetzea eta lan-munduan aplikatzeko finantza-ezagutzak lortzea izan ziren. Ekimen hori gainerako egitasmoen gaineratik gailendu zen, gizarte-konpromisoa eta finantza-hezkuntzaren arloko lana oso handiak zirelako, kalitateko edukiak eskaintzeaz gain.

Bestalde, 2017an, Finantza Hezkuntzako Planaren ezarpena goraiatzeko Finanzas para Todos saria Mapfre fundazioari eman zitzaion, «Seguros y pensiones para todos» egitasmoa saritzeko. Aseguruen kultura eta gizarte-aurreikuspena bultzatzeko eta hedatzeko gune bat da. Bertan oinarritzko kontzeptuak jasota daude, bai eta eguneko kontsulten ebazpena ere. Epaimahaiak edukien kalitatea eta aniztasuna, egitasmoaren ibilbide luzea eta gaiari heltzeko modu praktikoa eta didaktikoa azpimarratu zituen.

Bestalde, finantza-hezkuntzari buruzko ekimenik onena nabarmentzeko kategorian, Finanzas para Todos saria Isadora Duncan fundazioaren egitasmoari eman zitzaion. Epaimahaiak azpimarratu zuen fundazio horretako arduradunek guraso bakarreko familiei emandako laguntza (batez ere, ama ezkongabeei): seme-alaben hezkuntzari, diru-laguntzei eta prestazioei, eskubideei eta gizartean zein bizitza pertsonalean topa ditzaketen zailtasunei buruzko informazioa emanez.

Lankidetzaren hitzarmenak bultzatzea eta sinatzea

Plana garatzeko eta betearazteko, ezinbestekoa da finantza-hezkuntzan parte hartzen duten eragile guztiek parte har dezaten: administrazio publikoek, finantza-industriak, enpresek, ikerketa-erakundeek, kontsumitzaileen elkarteek edo hezkuntza-sistemak. Lankidetzaren ezinbestekoa da, planaren helburuak bete ahal izateko, biztanleria-segmentu

guztietara heltzeko behar bezalako malgutasuna lortzeko eta, azkenean, biztanleen finantza-kultura areagotzeko.

Lankidetzaz hitzarmen bidez egituratu da Finantza Hezkuntzako Plana. Lagundu nahi zuen erakunde edo entitate bakoitzak sinatzen zituen, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalarekin eta Espainiako Bankuarekin. Hitzarmen horietan laguntzailearen konpromisoa jasota dago, beraren jardun-eremuan finantza-hezkuntzako jarduerak garatzeko. Horrekin batera, lankidetzaz antolatzen dituzten erakundeak ere ezarrita daude.

Oro har, irabazi-asmorik gabeko erakundeak dira planean laguntzen dutenak (bereziki, fundazioak edo sektoreko elkarteak). Finantza-hezkuntzako programak ematen dituzte, publiko orokorrari zuzenduta.

Finantza-hezkuntzari lotutako arloei buruzko azterlanak edo ikerketak egiten jarduten duten erakunde batzuk ere planean kide laguntzaileak dira. Beste erakunde batzuek taldekatzen dituzte finantza-hezkuntzaren xede-segmentuetan jotzen diren hartzaile zehatzak: esaterako, hezkuntza- edo erretirodunen elkarteak; egoera ahulagoan dauden edo gizartean sartu behar diren kolektiboak laguntza emateko espezifikoak eratuta dauden elkarteak; administrazio publikoak, finantza-hezkuntzaren arloan zuzeneko edo zeharkako erantzukizuna badute.

2008tik, eta indar handiagoz, 2013-2017 aldian, lankidetzaz hitzarmen ugari sinatu dira, hainbat erakunderekin. Finantza Hezkuntzako Planean, gaur egun, hogeita hamar laguntzaile daude, banku-, hezkuntza-, ikerkuntza-arlokoak edota hirugarren sektorekoak (ikus III. eranskina).

Finantza Hezkuntza, ikastetxeetan

Finantza Hezkuntzako Planaren jardun-lerro nagusietako bat finantza-hezkuntza ikastetxeetan sustatzea da, Ekonomiako Lankidetzaz eta Garapenerako Erakundearen gomendioei jarraituz.

❖ *Finantza Hezkuntzako Eskola Programaren garapena*

Ikastetxeetan finantza-hezkuntza areagotzeko, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak eta Espainiako Bankuak 2009an lankidetzaz hitzarmena sinatu zuten, Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioarekin. Hitzarmen horren esparruan, Finantza Hezkuntzari buruzko Programa bat garatu da, 2010etik hona. 14 eta 18 urte bitarteko ikasleei zuzenduta dago (DBHko 3. eta 4. mailetakoei edo Erdi Mailako Heziketa Ziklokoiei). Programa horrek 2017-2018 ikasturtean ere jarraituko du.

Urtero, autonomia-erkidego guztietako 500 ikastetxe inguru sartzen dira programan. Parte hartzen duten ikastetxe guztien % 70 ikastetxe publikoak dira; % 25, ikastetxe itunduak; eta % 5, ikastetxe pribatuak. Programa egin den lehenengo bost aldiotan guztira 300 000 ikasle parte hartu dute.

Programa borondatezkoa, malgua eta moldagarria da. Izena ematen duten ikastetxeetan oinarriko material didaktikoak jaso ahal dituzte: irakaslearen gidaliburua eta ikaslearen

liburua, 10 irakasgaitan banatuta. Liburuak Espainiako hezkuntza koofizialetara itzuli dira, baita ingelesera ere.

Gidaliburu horietan honako gai hauek jorratzen dira, besteak beste: dirua, transakzioak, norberaren finantzen plangintza eta kudeaketa, arriskua eta etekinak eta finantza-panorama. Ikastetxea Programan erregistratu ondoren⁴, material didaktikoak eskura ditzakete, irakasleentzat eksklusiboki gordeta dagoen web-zona baten bitartez: www.gepeese.es.

Web horretan, gainera, publiko orokorrarentzako zona bat dago. Errepositorio gisa eratuta dago, eta bertan biltzen dira baliabide didaktikoak, erabilerak, multimedia tresnak, jokoak eta jarduera-lantegiak. Irakasleek lagungarri moduan erabili ahal dituzte.

Ikastetxe bakoitzak erabaki dezake edukiak bere programazioaren arabera moldatzeko modurik onena. Finantza-gaitasuna zeharkako gaitasuna denez, programa ikasi bitartean zenbait gaitasun lantzen dira. Hori dela eta, komeni da edukiak zeharka erabiltzea, hau da, beste ezagutza-arlo batzuetan sartuta: esaterako, Matematika arloan, Gizarte Zientzietan (Geografian, Historian) edo beste batzuetan. Programan garatzen diren gako-gaitasunen laburpen bat IV. eranskinean jasota dago, bai eta finantza-gaitasunarekin duten lotura ere.

Programan parte hartuz gero, ikastetxeek izena eman ahal dute urtero egiten den lehiaketan. Sariak Finantza Hezkuntzaren Egunean banatzen dira. Lehiaketaren bidez, ikasleei ohartarazi nahi zaie finantza-hezkuntzak bizitza-etapa guztietan duen garrantziaz. Finantza Hezkuntzako Programa aldatuz joan da: batzuetan, infografiak eta bideoak egin dira; eta beste batzuetan, finantza-hezkuntzari buruko prentsa-artikuluak.

Azken aldian, lehiaketa bat antolatu zen, eta ikasleen ezagutzak galdera-erantzunen bitartez neurtu ziren, fase baztertzailleak ezarrita. Azken fasean Madrilgo Algete-ko Al Satt BHI eta Sevillako Gustavo Adolfo Becquer BHI lehiatu ziren. Aldi horretan, Madrilgo institutuak irabazi zuen. Bizipena oso ona izan da; hortaz, hurrengo ikasturteetan ere errepikatuko da.

❖ *Finantza Hezkuntzako Eskola Programa hedatzea*

Finantza Hezkuntzako Eskola Programa ikastetxeetako arduradunei jakinarazteko asmoz, planeko lantaldeetako kideak oso maiz jartzen dira harremanetan hezkuntzan parte hartzen duten eragileekin. Hori horrela, bilerak izaten dituzte Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioko arduradunekin —Espainiako Bankuak eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak 2009an lankidetzaren hitzarmena sinatu zuten ministerioarekin, finantza-hezkuntza ikastetxeetan sustatzeko—, bai eta autonomia-erkidego guztietako hezkuntza-saileko arduradun guztiekin ere.

⁴ http://www.gepeese.es/Inscripcion_Centros/Formulario-Cursos.aspx.

Bilera horien xedea programari buruzko informazio garrantzitsuena, materialak eta irismena hedatzea da. Programak harrera ona izaten du, eta sailburu gehienek nabarmen laguntzen dute, programa ikastetxeetan bultzatzeko.

Era berean, programa hezkuntza-elkarteen bitartez zabaldu da⁵. Elkarte horietan biltzen dira Espainia osoko ikastetxe pribatuak, itunduak eta publikoak. Hezkuntza-elkarte batzuen lana funtsezkoa izan da programa ezagutarazteko.

❖ *Finantza Hezkuntzako Eskola Programaren ebaluazioa*

Ekimen honen eragina ezagutze aldera, 2010etik hona, Finantza Hezkuntzako Eskola Programaren ebaluazioak egin dira, eta agerian utzi dute programaren eraginkortasuna.

Zehazki, 2014-2015 ikasturtean⁶ bigarren hezkuntzako ikastetxeetan egindako programaren ebaluazioaren arabera, agerian utzi da Finantza Hezkuntzako Eskola Programak eragin ona izan duela:

1. **Ikasleen finantza-ezagutzak.** Finantza-hezkuntzako ikastaroa egin zuten ikasleek finantza-ezagutzei buruzko zenbait probatan lortu zituzten emaitzak hobeak izan ziren, ikastaroa egin ez zuten ikasleen emaitzekin erkatuta.
2. **Ikasleen ezagutzak, banku-harremanei buruz.** Ebaluazioaren ondorioetan jasota dago finantza-hezkuntzari buruzko ikastaroa bereziki lagungarria izan zela, ikasleen «banku-harremanei» buruzko ezagutzak handitzeko: esaterako, banku-kontuak ireki eta ixtea, dirurik gabe geratzearen ondorioak edo banku-komisioak. Eragin hori ez da hain agerikoa izan aurrezkiei, ordaintzeko moduei edo zentzuz kontsumitzeari buruzko gaietan.
3. **Gurasoekin ekonomiaz hitz egiten duten ikasleen kopurua.** Finantza-hezkuntzako ikastaroa dela eta, gurasoekin ekonomia-gaiei buruz hitz egiten duten ikasleen kopurua handitu egin zen. Horren arabera, ondoriozta liteke Finantza Hezkuntzako Eskola Programa ikasleentzat eta, oro har, familientzat onuragarria dela.
4. **Diru-sarrerak lortzeko, etxeko eremuan lanen bat egiten duten ikasleen kopurua.** Ikastaroa egin ondoren, handitu egin zen, diru-sarrerak lortzeko, etxeko eremuan lanen bat egiten zuten ikasleen ehunekoak. Horrek esan nahi du finantza-hezkuntzako ikastaroak berekin dakarrela ikasleek parte-hartze handiagoa izatea familiaren finantza-kontuetan.
5. **Egungo kontsumoaren ordeztu, etorkizuneko kontsumo-aukera bat aukeratzen duten ikasleen kopurua.** Ebaluazioaren bitartez egiaztatu da ikasleek kontsumoari buruzko behin-behineko jokabideak aldatzen dituztela, ikastaroa egin ondoren: esaterako, pazientzia gehiago izaten dute, balizko diru-hautaketak egin behar izaten dituztenean. Zehatz-mehatz, ikastaroa egin ondoren, egungo kontsumoaren ordeztu, etorkizuneko kontsumo-aukera bat hautatu zuten ikasleen kopurua handitu egin zen.

⁵ ACADE, CECE, CICAIE, FERE-CECA eta UECOIE.

⁶ Bover.O, L. Hospido, E. Villanueva (2018): *The Impact of High School Financial Education on Financial Knowledge and Choices: Evidence from a Randomized Trial in Spain*, Documentos de Trabajo. N.º 1801. Banco de España, Eurosistema.

Balitzko hautaketetan ikusitako emaitzak berdin jarraitu zuen hiru hilabete geroago egin zitzairen beste ariketa batean. Ariketa horretan ikasleei proposatzen zitzairen egungo eta etorkizuneko kontsumoa banatzea, benetako ordainketak eginda. Emaitza horiek erakusten dute ikasle ebaluatuen jarraipena egin behar dela, finantza-hezkuntzako ikastaroaren eragina epe luzean ezagutzeko. Izan ere, kontsumo-jokabideak oso garrantzitsuak izaten dira pertsonen bizi-ziklo osoan hartu behar dituzten erabakietan.

Finantza Hezkuntzako Planaren egiten ari den ikerketa- eta ebaluazio-lanaren jarraipena egite aldera, 2018-2021 aldirian ebaluazioa egingo zaie hasieran ebaluatu ziren ikasleei. Horrela jakingo dugu programaren epe luzean eragina zein den, eta horri buruzko ezagutza osatuagoak jasoko ditugu.

❖ *Finantza Hezkuntzako Eskola Programari buruzko beste balorazio eta iritzi batzuk*

Aldi honetan, halaber, programan parte hartu duten irakasleen iritziak jaso ditugu. Haiek agerian utzi dute: batetik, ikasleek egiteko joko, jarduera praktikoa eta dinamika gehiago ezarri behar direla; eta, bestetik, irakasleek finantza-heziketaren arloko prestakuntza gehiago behar dutela. Era berean, irakasleek, oro har, adierazi zuten finantza-hezkuntza eskola-curriculumean sartu behar dela; eta, azkenean, sartu egin da.

Edonola ere, balorazio orokor gisa, programan parte hartu duten irakasleek programaren alde egin dute, eta balioespen ona eman diote.

❖ *Finantza-hezkuntza eskolako curriculumean sartzea*

Finantza Hezkuntzako Planaren aurreko aldiko lorpenik handienetako bat finantza-hezkuntza eskolako curriculumean sartzen laguntzea izan da⁷. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak bultzatu du, eta Espainiako Bankuak eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak ere laguntza esanguratsua eman dute.

Segidan, arau-garapenetan —bai Lehen Hezkuntzan, bai Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan— sartu diren finantza-hezkuntzari lotutako edukiak zehaztuko ditugu.

⁷ Gauregungo hezkuntza-sistema abenduaren 9ko 8/2013 Lege Organikoan ezarrita dago (Hezkuntzaren Kalitatea hobetzeko Lege Organikoan, zehatz-mehatz). Honako errege-dekretu hauek dira finantza-hezkuntzaren edukiak gertuaren irakaskuntzen curriculumean sartzea kontuan hartzen diren legearen garapenak:

- Otsailaren 28ko 126/2014 Errege Dekretua, Lehen Hezkuntzako oinarritzko curriculuma ezartzen duena.
- Abenduaren 26ko 1105/2014 Errege Dekretua, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzaren eta Batxilergoaren oinarritzko curriculuma zehazten ditu.

Errege-dekretu bietan oinarritzko alderdi batzuk ezarrita daude. Gero, hezkuntza-administrazioek oinarri horiek abiapuntutzat hartzen dituzte, kudeaketa-eremua, curriculumearen konfigurazioa eta ikaskuntzen antolamendua etapa horietan finkatzeko.

- *Finantza Hezkuntza, Lehen Hezkuntzan*

Lehen Hezkuntzako ikasleak 6 eta 12 urte bitartekoak izaten dira, eta hezkuntza sei ikasturteetan egituratzen da. Finantza-hezkuntzako edukiak Gizarte Zientzietako irakasgaietan sartu dira, curriculumaren konfigurazioan. Irakasgai ardatz hori (Gizarte Zientziak) lau eduki-bloketan antolatuta dago: 1) Eduki komunak; 2) Gure mundua; 3) Gizartean bizitzen ikastea; eta 4) Denboraren azterketa.

Finantza-hezkuntzari buruzko edukiak hirugarren blokean sartu dira (Gizartean bizitzen ikastea). Hona hemen edukiak, zehaztuta:

EDUKIAK	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK	IKASKUNTZA-ESTANDAR EBALUAGARRIAK
Finantza-hezkuntza. Dirua. Aurrezkiak.	Publizitatearen funtzionamendua eta teknikak deskribatzea, eta publizitate hezitzailea eta publizitate kontsumista bereiztea.	Ikuspegi kritikotik, publizitatearen funtzioa ebaluatzen du, eta publizitate-teknika ohikoenak azaltzen ditu, adibide zehatzak aztertuta.
		Gastu motak bereizten ditu, eta aurrekontua mota bakoitzaren arabera doitzen du.
	Diruaren balioa eta erabilerak ezagutzea, aurreztu eta arduraz kontsumitu behar dela jakitea.	Aurrezkiak aurrekontu pertsonal txiki bat eginez antolatzen ditu, etorkizuneko gastuei aurre egin ahal izateko.
		Erosketak egiteko estrategiak ikertzen ditu, prezioak erkatuz eta informazioa bilduz.

Bloke honetako edukiak, ikaskuntza-arauak eta ebaluazio-irizpideak aldatzen dira, zer ikasturte den (1. ikasturteetik 6.a arte). Hezkuntza-administrazio bakoitzak erabakitzen du nola banatu edukiak.

Finantza-hezkuntzako edukiak, zehazki, Lehen Hezkuntzako azken hiru ikasturteetan ikasten dira (4., 5., eta 6. mailatan): guztiak ikasturte berean jasota; edo zeharka, finantza-hezkuntzari buruzko ikaskuntza-estandarrak ikasturteetan banatuta. Lehen Hezkuntzako ikasle guztiek finantza-hezkuntzari buruzko gutxieneko eduki batzuk ikasten dituzte.

- *Finantza Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan*

DBHn lau ikasturte daude, eta ikasleak 12 eta 16 urte bitartekoak izaten dira. Hezkuntzaren Kalitatea hobetzeko Lege Organikoak bi ziklotan zatitzen ditu: 1. zikloan DBHko 1., 2., eta 3. mailak daude; eta 2. zikloan, DBHko 4. maila dago.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan finantza-hezkuntzari buruzko eduki gehienak —finantza pertsonalei buruzkoak— DBHko 4. mailako Ekonomia irakasgaietan sartzen dira. Irakasgai hori irakasgai ardatza da, baina «hautazkoa», hau da, ikasle guztiek ez dute nahitaez hautatu behar («irakasgai ardatz orokorrak» ez bezala; horiek beti izaten baitira nahitaezkoak).

Irakasgai horretan sei eduki-bloke daude: 1) Oinarrizko ekonomia-ideiak; 2) Ekonomia eta enpresa; 3) Ekonomia pertsonala; 4) Ekonomia eta Estatuaren diru-sarrerak eta gastuak; 5) Ekonomia eta interes-tasak, inflazioa eta langabezia; 6) Nazioarteko ekonomia.

3. blokearen zehaztapena: Ekonomia pertsonal

EDUKIAK	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK	IKASKUNTZA-ESTANDAR EBALUAGARRIAK
a) Diru-sarrerak eta gastuak. Zehaztea eta kontrolatzea.	1. Aurrekontu pertsonal bat egitea, sarrera eta gastu motak bereizita, betetze-maila zaintzea, bai eta balizko egokitu beharrak ere.	1.1. Finantza-aurrekontu edo -plan bat pertsonalizatua egiten du, eta diru-sarrera eta gastu bakoitza zehazten ditu.
b) Aurrekontua kudeatzea. Helburuak eta lehentasunak.		1.2 Informazio-tresnak erabiltzen ditu, finantza-aurrekontu edo -plan pertsonalizatu bat prestatzeko eta garatzeko
		1.3 Analisi-grafikoak erabiltzen ditu, errealitate pertsonal bat eta ezarritako aurreikuspenak erkatu ahal izateko.
c) Aurrezkiak eta zorpetzea. Pentsio-planak	2. Modu arrazionalen erabakitzea aukera ekonomikoen artean, eta aukera horiek norberaren eta gizartearen ongizatearekin lotzea.	2.1 Bizitzan finantza-gaiak kudeatu eta antolatu beharrak ulertzen ditu. Plangintza hori etapa bakoitzean egin behar den aurreikuspenari lotu zaio, hartutako erabakien arabera eta nazioko ekonomia-jardueraren martxaren arabera.
d) Arriskua eta dibertsifikazioa.	3. Aurreztearen aldeko jokabidea izatea eta aurrezkiak helburuak lortzeko bide gisa erabiltzea.	3.1 Aurrezkien garrantzia ezagutzen du, eta gastua kontrolatu beharra azaltzen du.
e) Etorkizuna planifikatzea. Bizi-etapetan sortzen diren behar ekonomikoak.		3.2 Zorpetzearen abantailak eta eragozpenak aztertzen ditu, arriskua baloratzen du, eta erabaki egokiena une bakoitzean hautatzen du.
f) Dirua. Banku-harremanak. Lehen banku-kontua. Informazioa. Zordunketa- eta kreditu-txartelak.	4. Diruaren oinarriko funtzionamendua jakitea eta bankuko kontu motak eta ordainketa-baliabide moduan ematen diren txartelak bereiztea, ziurtasunez eta zentzuz erabiltzeko moduak baloratu.	4.1 Oinarriko terminoak ulertzen ditu, eta banku-kontuekin egin behar diren jarduketan funtzionamendua azaltzen du.
g) Finantza-kontratuen inplikazioak. Kontsumitzaileek finantza-merkatuan dituzten eskubideak eta erantzukizunak.		4.2 Bankuek ematen dituzten dokumentuak arretaz irakurri beharra baloratzen eta ziurtatzen du, eta segurtasunak Interneteko harremanetan duen garrantziaz ohartzen da.
		4.3 Kontuan hartzen du finantza-erakundeek azaltzen dituzten baldintzak negoziatzeko aukera, eta horri buruzko erreklamazioak egiteko prozedura aztertzen du.
		4.4 Gaur egun dauden txartel modalitateak identifikatzen eta azaltzen ditu, bai eta txartelak erabiltzean bermatu behar den segurtasuna ere.
h) Asegurua, arriskuetatik babesteko baliabidetzat hartuta. Aseguruen tipologia		5. Aseguruen kontzeptua eta xedea ezagutzen ditu

Hori guztia dela eta, finantza-edukiak Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan sartuta daudela esan daitekeen arren, ezin da ondorioztatu ikasle guztientzat orokorrean ezarrita daudenik. Ekonomia irakasgaia DBHko 4. mailan hautatu ahal denez, batetik, lanbide-heziketako ikasleak kanpoan uzten dira; eta, bestetik, Zientzien Batxilergoa egin nahi duten ikasleak ere kanpo uzten dira.

Hezkuntza Administrazio bakoitzak, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eta Batxilergoko oinarritzko curriculumak ezartzeko 1105/2014 Errege Dekretuan oinarrituta, bere hezkuntza-eskaintza osatzen du, eta errege-dekretuan biltzen diren edukiak garatu, zabaldu edo zehaztu ahal ditu. V. eranskinean taula bat azalduta dago, eta autonomia-erkidego bakoitzak finantza-hezkuntzari buruz ezarri duen arau-garapenaren maila bertan zehaztuta dago.

Esan bezala, finantza pertsonalei buruzko edukiak curriculumean sartzeko modalitateak ez du bermatzen DBHko ikasle guztiek eduki horiek jasotzerik. Horrenbestez, egoera horrek tartea uzten du Finantza Hezkuntzako Planak ikastetxeei borondatez eskaintzen dien eskola-programa ezartzeko.

❖ *Irakasleen prestakuntza eta baliabideen diseinua, Finantza Hezkuntzako Eskola Programarako*

Finantza Hezkuntzako Programaren esparruan irakasleentzat eta ikasleentzat sortzen diren baliabideak egokituz eta eguneratuz joan dira, azken urteotan programaren ebaluazioen emaitzen arabera.

Zehazki, egindako ebaluazioek agerian utzi dute irakasleei prestakuntza eman behar zaiela. Horren ondorioz, gidaliburu batzuk prestatu ziren, eta ikasgelan erabili ahal izateko ideiak eta baliabideak, curriculum-arlo lotuak eta PISA finantza-gaitasunaren arlo lotua jaso ziren.

Gainera, Finantza Hezkuntzako Planak, Hezkuntzako eta Irakasleen Prestakuntzarako Teknologien Institutu Nazionalaren laguntzarekin batera (INTEF), Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakasleei emateko ikastaro bat egin zuen, finantza-hezkuntzaren arloko gaiak irakasteko gaitasuna lantzeko (aurretiazko prestakuntza edozein izanda ere). Ikastaroa herritar guztiei eskaintzen zaie, eta INTEF plataformaren bidez ikastaroan sartzeko aukera dago.

Era berean, NOOC ikastaroak (ikastaro irekiak, masiboak eta iraupen laburrekoak) grabatzen hasi da, finantza-hezkuntzari buruz, kreditu azkarrei buruz eta banku-txartelei buruz. Finantza Hezkuntzako Planak, Hezkuntzako eta Irakasleen Prestakuntzarako Teknologien Institutu Nazionalaren laguntzarekin batera (INTEF), egin ditu NOOC ikastarook, irakasleei finantza-hezkuntzaren alderdi garrantzitsuen gaineko prestakuntza emateko. Bigarren fasean, hiru NOOC gehiago grabatuko dira, aurrezkiei, merkataritza elektronikoari eta finantza-erabakiak hartzeko psikologiari buruzkoak.

❖ *PISA ebaluazioa, finantza-gaitasunari buruz*

PISA izenak *Programme for International Student Assessment* esan nahi du, ingelesez; hau da, Ikasleen Nazioarteko Ebaluazioa egiteko Programa da. Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundearen proiektua da. 16 urte inguruko ikasleak ebaluatzen ditu, derrigorrezko hezkuntza-etaparen amaieran daudenean.

Biztanle horiek bigarren hezkuntzaren ondoko hezkuntza hastear daude, eta epe laburrean laneratuko dira. Programa hori sortzeko asmoa informazio ugaria eta zehatza ematea zen, estatu kideei hezkuntza-mailak hobetzeko erabakiak eta politika publikoak hartzen laguntzeko.

Ebaluazioan irakurtzeko gaitasuna, matematikak eta gaitasun zientifikoa neurtzen dira. Ohiko gaitasunak ebaluatzeaz gain, PISA ebaluazioak gaitasun berritzaile bat sartzen du ziklo bakoitzean. 2012an, finantza-gaitasunaren ebaluazioa gehitu zen.

PISA 2012

Pisa 2012 izan zen eskala handiko lehen nazioarteko azterlana. 18 herrialdetan derrigorrezko hezkuntza amaitzear zeuden zenbait ikasleren finantza-gaitasuna ebaluatu zen⁸; gehienak, derrigorrezko bigarren hezkuntzako 4. mailan zeuden, edo 10. graduan.


PISA 2012 ebaluazioan honela definitu da finantza-hezkuntza: prozesu bat da, eta, horren bitartez, ikasleek produktuak, kontzeptuak eta finantza-eremuak hobeto ulertzen dituzte; horrez gain, finantza-arriskuez eta aukerez gehiago ohartzen dira, hautaketa informatuak egiten dituzte, eta finantza-arazoak ebazteko ekintzak egiten dituzte. Horri esker, azkenean, beren finantza-ongizatea hobetzen dute, eta bizitza ekonomikoaren arloko gaietan parte-hartze handiagoa izan dezakete (Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea, 2013).

Esparru horretan biltzen diren eduki-arloak dirua eta transakzioak, plangintza eta finantzen kudeaketa, arriskua eta irabaziak eta finantza-panorama dira. Esparru horretan honako prozesu hauek ere jorratzen dira: finantza-informazioa zehaztea, informazioa finantza-eremuan aztertzea, finantza-gaiak aztertzea, ezagutzak aplikatzea, finantzak ulertzea. Honako eremu hauek kontuan hartzen dira: hezkuntza eta lana, etxea eta familia, norberaren bizitza eta gizarte-bizitza. Gainera, ikasleen finantza-gaitasuna honako hauekin erkatzen da, harremana aztertzeko: kognitiboak ez diren gaitasunekin, matematika-gaitasunarekin, irakurtzeko gaitasunarekin, jokabide-neurketarekin eta finantza-eskarmentuarekin.

Herrialdeen batez besteko puntuazioak bertako 15 urteko ikasleen benetako etekinaren kalkuluak dira. Emaitzak biztanleen lagin adierazgarria erabilita lortu dira, eta laginean herrialde edo ekonomia bakoitzeko urte horretako ikasle guztiak ordezkaturak zeuden.

⁸ Honako hauek izan ziren Finantza Gaitasunaren ebaluazioan parte hartu zuten herrialdeak. Haietako 13 dira Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundeko herrialdeak: Australia, Belgika, Eslovakia, Eslovenia, Espainia, Estatu Batuak, Estonia, Frantzia, Israel, Italia, Zeelanda Berria, Polonia eta Txekiar Errepublika. Eta gainerako bostak herrialde (edo ekonomia) elkartuak dira: Kolonbia, Kroazia, Errusiar Federakundea, Letonia eta Shanghai (Txina).

«Finanzas para toda la vida» azterlaneko batez besteko biztanleen % 95eko konfiantza-tarteak eta batez besteko puntuazio balioetsiak. 2012



Iturria: Informe español. PISA 2012 43. orria. Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea.

PISA 2012 finantza-gaitasunaren ebaluazioan Espainiak 484 puntu lortu zituen⁹. Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundearen batezbestekoa 500 puntukoa izan zen.

Puntuaziorik handienak Txinako Shanghai hiriak (603) eta Belgikako Flandria eskualdeak (541) lortu zituzten. Segidan, honako hauek ditugu: Estonia (529), Australia (526) eta Zeelanda Berria (520). Haien artean ez dago alde nabarmenik eta Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundearen batezbestekoaren gainetik daude.

Emaitza horiek 2014ko uztailaren gan jakinarazi ziren; zehazki, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak, Espainiako Bankuak, Hezkuntza Ebaluaziorako Institutu Nazionalak (INEE) erakundeak eta Hezkuntza Berrikuntzarako eta Ikerketarako Zentro Nazionalak antolatutako «Finanzas para la Vida» biltzarrean.

⁹ Iturria: Informe español. PISA 2012. Finantza Gaitasuna.


PISA 2015

PISA 2015ean finantza-gaitasuna ebaluatu zen, bigarren aldiz, eta nazioen arteko konparazio bat egiteko bide eman zuen.

PISA 2015 txostenean, 15 herrialdetako 53 000 ikaslek osatutako lagina baliatu zen. Herrialde horietako bat¹⁰ Espainia izan zen. Euskarri digitalean aurkeztu zen (aurreko ebaluazioa, ordea, paper-euskarrian egin zen), gainerako proba kognitibo eta testuinguru-proba guztiak bezala.

Ikasleek ordu bateko proba bat egin zuten. Finantza-gaitasuna neurtzeko galderak bi bloketan antolatuta zeuden, eta guztira 43 galdera egin ziren. Honako gai hauek jorratu ziren: narrazio-testuak, azalpen-testuak, diagramak, taulak, grafikoak eta ilustrazioak. Gehienak ainguratze-galderak ziren, 2012an ere erabilia. Horrez gain, beste galdera batzuk ere gehitu ziren. Horrekin batera, ikasleek galdetegi bat ere bete zuten, eskolan irakasgai horretan izandako bizipenei eta jokabideei buruz, eta haien egoera ere zehazteko. Bestalde, ikastetxeetako zuzendariak eskolako finantza-hezkuntzari buruzko galderak erantzun zituzten, eta tartea izan zuten beren iritziak adierazteko.

«Finanzas para toda la vida» azterlaneko batez besteko biztanleen % 95eko konfiantza-tarteak eta batez besteko puntuazio balioetsiak. 2015



Iturria: Informe español. PISA 2015. 45. orria. Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundea.

¹⁰ Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundeko 10 herrialde hauek dira PISA 2015 Finantza Gaitasuna ebaluatzeko ekimenean parte hartu zutenak: Australia, Belgika (Flandria), Kanada (probintzia batzuk), Txile, Eslovakia, Espainia, Estatu Batuak, Italia, Herbehereak eta Polonia. Eta 5 herrialde elkartu hauek ere bai: Txinako B-S-J-G eskualdeak (Beijing-Shanghai-Jiangsu-Guangdong), Brasil, Errusiar Federakundea, Lituania eta Peru.

Parte hartu zuten herrialdeen eta ekonomien batezbestekoarekin erkatuta (481), Espainiari finantza-gaitasunaren ebaluazioan esleitutako puntuazioa txiki samarra izan zen¹¹ (469). Puntuaziorik onenak Txinako eskualdeek (566), Belgikako Flandria eskualdeak (541) eta Kanadako probintziek (533) lortu zituzten. Aitzitik, ebaluazioaren puntuaziorik txarrenak Hego Amerikako herrialde hauek lortu zituzten: Txile (432), Peru (403) eta Brasil (394) herrialdeek.

PISA txostenean finantza-gaitasunari buruz lortu ziren emaitzak 2017ko maiatzean aurkeztu ziren.

Laburbilduz, PISA 2012 eta PISA 2015 azterlanen emaitzek erakusten dute azterlanean parte hartu zuten Ekonomiako Lankidetzak eta Garapenerako Erakundearen herrialdeetako finantza-gaitasunaren etekinaren batezbestekoa baino txikiagoa dela Espainiakoa.

Hortaz, beharrezkoa da Finantza Hezkuntzako Planean eremu horretan egiten den lana indartzea. Espainiak jada konpromisoa hartu du PISA 2018 ebaluazioan finantza-gaitasuna sartzeko, eta, ziur asko, PISA 2021ean ere sartuko du. Horri esker, eremu horretan egin diren balizko aurrerapenen neurketa objektiboa izango dugu.

Finantza Hezkuntzako Plana sustatzea

2017ko irailetik, **Radio 5** irrati-etxean «Las cuentas claras» mikrosaiok igortzen dira, herritarrei eguneko finantza-gaiak buruzko informazioa emate aldera. Programa horiek Espainiako Irrati Telebista (RTVE) komunikabidearen webgunean ere erabilgarri daude. Esteka hau erabiliz, deskargatu ahal dira: <http://www.rtve.es/alacarta/audios/las-cuentas-claras/>.

Espainiako Bankuko, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalako eta Aseguruaren eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Nagusiko adituen laguntzarekin batera, 3 edo 4 minutuko saio horietan askotariko finantza-gaiak jorratzen dira: kreditu azkarrak, berehalako ordainketak, kutzazainen komisioak, inbertsio-aholkuak, finantza-publizitatea, UTB eta abar. Egun arte, 50 programa inguru grabatu dira.

Bestalde, 2016ko irailetik 2017ko ekaina arte, **Radio Aragón** irrati-etxearekin asteroko kolaborazioa egin da. Ekonomiari buruzko saio bat egiten dute, eta finantza-hezkuntzari buruzko dibulgazio-pilulak ematen dituzte.

Guztira, 17 pilula grabatu ziren. Gaiak askotarikoak izan ziren: baimenik gabeko finantza-elkarteak; familia-aurrekontua; inbertsio-funtsak zer diren, eta nola funtzionatzen duten; finantza-zerbitzuen arloko erreklamazioak, kontseiluak eta oharrak, inbertsioa egin aurretik kontuan hartzeko.

Era berean, Finantza Hezkuntzako Planaren profil bat **Twitter**-en sortu da: @finanzaspartods; eta beste bat, **Facebook**en. Horien bitartez, maiz ematen da herritarren intereseko informazioa. Horrekin batera, www.finanzasparatodos.es webgunean ere informazioa argitaratzen da, astero.

¹¹ Iturria: Informe español. PISA 2015. Finantza Gaitasuna

Bestalde, Finantza Hezkuntzako Planeko erakunde laguntzaileek eta beste erakunde batzuek antolatutako jardunaldietan parte hartu da, Finantza Hezkuntzako Plana sustatzeko eta finantza-hezkuntzaren garrantzia nabarmentzeko.

Nazioarteko jarduerak

2013-2017 aldian erakunde aldeaniztunekiko lankidetzak indartu zen; bereziki, Ekonomiako Lankidetzak eta Garapenerako Erakundearen *International Network on Financial Education* (INFE) sarearekin. Sare horretan daude Balore Merkatuaren Batzorde Nazionala, Espainiako Bankua eta Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusia, eskubide osoko kide gisa (*full members*). Era berean, Finantza Hezkuntzako Planeko bi entitate laguntzaile (UCEIF fundazioa eta Institut d'Estudis Financers) INFEko kide afiliatuak dira.

Ekonomiako Lankidetzak eta Garapenerako Erakundearen gomendioak eta printzipioak oinarri hartzen dira Planaren eta INFEn ekintzak zehazteko. INFE 2008an eratu zen, eta ezagutzak eta jardunbide egokiak elkartrukatzeko leku aproposa da. INFE bidez, datu frogagarriak biltzen dira, eta herrialdeen artean erkatzen dira. Horrez gain, eragina ebaluatzen diren metodologiak garatzen dira, konparazio-ikerketak eta analisiak egiten dira, tresna arauemaileak diseinatu dira, eta aplikazio- eta ikuskapen-neurri eraginkorrak sustatzen dira. Sare horretan 115 herrialdeetako 240 erakunde publiko baino gehiago daude.

INFEko batzorde teknikoan urtean bitan biltzen dira sare horretako herrialde kide guztiak, eta finantza-hezkuntzari buruzko gai interesgarriak jorratzen dituzte. Azken urteotan, finantza-arloko ongizatea, egoera ahulean dauden kolektiboak, erretiratze-adinerako aurrezteak edo interes-gatazkek ebazteko mekanismoak landu dituzte, besteak beste.

Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak, Espainiako Bankuak eta Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiak lankidetzak aktiboak egiten dute, bizipenak elkartrukatzeko eta estrategia nazionalaren garapenerako gako diren dokumentuak egiteko.

Ekonomiako Lankidetza eta Garapenerako Erakundeko INFE sareak 2013-2017 aldian egin dituen dokumentuak

- 2013: Addressing Women & Girls Needs for Financial Education
- 2013: Detailed Guide to Evaluation.
- 2013: G20-OECD- Advancing National Strategies for Fin Edu
- 2013: Women and Financial Education
- 2014: Fin Edu for Youth- The role of schools
- 2014: Guidelines on Fin Edu for Private- not for profit Stakeholders.
- 2015: Core Competencies Framework- Youth
- 2015: National Strategies for Fin Edu- Policy Handbook
- 2015: PISA 2012 Results- Students and Money
- 2015: Progress Report on Fin Edu for MSMEs
- 2015: Toolkit for measuring Fin Lit
- 2016: Fin Edu Policies in Europe
- 2016: Financial Education- Long term Integration of Refugees
- 2016: G20-OECD-INFE Core Competencies Framework- Adults
- 2016: OECD-INFE International Survey- Adult Fin Lit Competencies
- 2017: G20-OECD-INFE Report on Adult Financial Literacy in G20 Countries
- 2017: G20-OECD-INFE Report on Financial Education & Consumer Protection- Digital Age
- 2017: PISA 2015 Results- Financial Literacy

Finantza-gaitasunei buruzko inkesta

Finantza-hezkuntzaren arloan estrategia nazionalak egin ahal izateko, Ekonomiako Lankidetza eta Garapenerako Erakundeak gomendatu du biztanleen benetako beharrak zehaztea, biztanleen sektoreak aztertuz eta tresna demoskopikoak erabiliz (adibidez, inkestak nazionalak)¹².

Finantza-kulturari buruzko inkesta horiek sustatzaileei laguntzen diete: batetik, indartu behar diren ezagutza-arloak identifikatzen; eta, bestetik, finantza-hezkuntzako programek gizartean izaten duten eraginkortasuna eta ezagutzetan egiten duten aurrerapena neurtzeko oinarria ezartzen.

Testuinguru horretan, Espainiako Bankuak eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak finantza-gaitasunei buruzko inkesta bat egin dute (ECF), finantza-hezkuntzaren arloko planaren esparruan. Inkesta 2016ko azken hiruhilekotik 2017ko bigarren hiruhilekora egin zen, eta inkestak neurtu zuen Espainiako 18 eta 79 urte bitarteko biztanleek finantza-kontzeptuak zenbateraino ezagutzen eta ulertzen zituzten. Horrez gain, inkestak neurtu zuen herritarrek aurrezkiak, zorrak eta aseguruak kudeatzeko tresnak edukitzen, erosten edo erabiltzen zituzten.

Inkesta hori Estatistika Plan Nazionalan jasota dago. Bertan bildu diren ezaugarriak direla-eta, Espainiako biztanle helduen finantza-ezagutzen gaineko azalpen zorrotza

¹² *Measuring Financial Literacy: Core Questionnaire in Measuring Financial Literacy: Questionnaire and Guidance Notes for conducting an Internationally Comparable Survey of Financial literacy. Paris: OECD*

eta osoa egin dezake, bai eta biztanleen eta finantza-sistemaren arteko harremanaren gainekoa ere.


Segidan, inkesta horren lehenengo emaitzetako batzuk jaso ditugu; gainera, kontuan hartu dira planean bildutako estrategia egiteko.

❖ *Finantza-ezagutzak*

Finantza-ezagutzak hiru galderen bitartez neurtu dira. Galdera horiek aurrez ere erabili dira nazioarteko azterlan batzuetan¹³. Hiru galdera horiek finantza pertsonalen kudeaketari buruzkoak dira, eta honako gai hauek lantzen dituzte: inflazioa, interes konposatua eta arriskuaren dibertsifikazioa.

Elkarrizketatuen % 58k zuzen erantzun du inflazioari buruzko galdera. % 46k zuzen erantzun du interes konposatuaren gaineko galdera; eta % 49k, arriskua dibertsifikatzeari buruzko galdera. Grafikoak datuok erakusten ditu.

Gráfico 1. RESPUESTAS A PREGUNTAS SOBRE CONOCIMIENTOS FINANCIEROS



Espainiako biztanle helduen finantza-ezagutzak eta kontuan hartu diren herrialdeen batezbestekoa antzekoak dira, oro har. Arriskuaren dibertsifikazioari buruzko kontzeptuari dagokionez, ordea, Espainian emandako erantzun zuzenen ehunekoa oso txikia da, batezbestekoarekin erkatuta (Ekonomiako Lankidetzeta eta Garapenerako Erakundeko herrialdeen eta EBko herrialdeen batezbestekoa kontuan hartuta).

¹³ Galderok INFE galdetegian erabiltzeaz gain, beste herrialde batzuetan ere erabiltzen hasi ziren, duela hamar urte. Ikus Annamaria Lusardi eta Olivia Mitchell (2014). «The Economic Importance of Financial Literacy: Theory and Evidence» *Journal of Economic Literature* 52(1), 5–44.

Gizonek emandako erantzun zuzenen ehunekoa baino 10 puntu txikiagoa da emakumeena. Diferentzia horren erdia, behintzat, sortu da emakumeek maizago baliatu baitute «Ez dakit» erantzuna.

Erantzun zuzenen ehunekoa pertsona elkarrizketatuaren hezkuntza-mailaren araberakoa da. Unibertsitate-ikasketak edo ikasketa baliokideak dituzten pertsonen % 70ek zuzen erantzun dute inflazioari buruzko galdera; % 53k, interes konposatuari buruzko galdera; eta % 60k, dibertsifikazioari buruzkoa. Lehen Hezkuntzako ikasketak dituzten pertsonen erantzun zuzenen ehunekoa baino % 14 puntu handiagoa da unibertsitate-ikasketak edo ikasketa baliokideak dituzten pertsonena (interes konposatuari buruzko galderan) eta % 22 puntu handiagoa, gainerako galderetan.

45 eta 64 urte bitarteko taldea da lehen galdera zuzen erantzun duen talderik handiena (% 65). Honako hauek dira erantzun zuzenen ehuneko txikienak lortu dituzten adin-taldeak: 65 urtetik gorakoak (% 57) eta 35 urtetik beherakoak (% 49).

Bigarren galderari dagokionez, 64 urtetik beherakoen % 50ek zuzen erantzun dute, baina ehuneko hori % 36 da, 64 urtetik gorakoak direnean. Askotariko akzioen erosketaren bidez, arriskua dibertsifikatzeko aukerari buruzko galderaren harira, 35 eta 64 urte bitartekoek % 50ek baino gehixeagok ondo erantzun dute; 35 urtetik beherakoen eta 65 urtetik gorakoen ehunekoak, ordea, % 43 ingurukoak dira. Galdera guztietan 65 urtetik gorakoen artean handiagoa da «Ez dakit» erantzun dutenen ehunekoa; zehazki, arriskua dibertsifikatzeari buruzko galderan % 39koa da.

la biztanleen erdiek (% 46k) uste dute «gutxi» edo «oso gutxi» dakitela, gai horri buruz. % 46k uste du «maila ertaineko ezagutzak» dituela, eta % 8k adierazi du «ondo» edo «oso ondo» ezagutzen duela gai horri. Batezbestekoari dagokionez, finantzei buruz oso gutxi dakitela adierazi dutenek hiru galderetatik 1,1 zuzen erantzun dute; gai hori «ondo» edo «oso ondo» ezagutzen dutela adierazi dutenek 2,1 galdera zuzen erantzun dituzte.

❖ *Aurrezkiak eta zorrak kudeatzeko tresnak edukitzea, erostea edota erabiltzea*

Espainiako % 97 pertsonek kontu korrante bat daukate. Gainera, % 43k, banaka edo batera, dirua aurrezteko tresna bat erabiltzen dute (aurrezki-kontuak, pentsio-planak, inbertsio-funtsak, akzioak edo errenta finkoko akzioak eta aktiboak).

Dirua aurrezteko gehien erabiltzen den tresna aurrezki-kontua edo epeko zergapetzea da: pertsonen % 26k erabiltzen dute. Hala eta guztiz ere, produktu hori ezezagunena da azterlanetan parte hartu dutenen artean (% 27k ez dute inoiz haren berri izan). Hori horrela, aurrezki-kontuen edo epeko zergapetzen berri izan duten pertsonen artean, % 35ek badauka produktu hori (biztanle guztien % 26ren aldean).

Aurrezkiak biltzeko gehien erabiltzen den bigarren tresna pentsio-planak dira. 18 eta 79 urte bitarte dituzten bost pertsonetatik batek pentsio-plan bat dauka. 45 eta 64 urte bitarteko pertsonen artean ohikoagoa da produktu hori edukitzea, erretirodunen eta 35 urtetik beherakoen ehunekoekin erkatuta. 45 eta 64 urte bitarteko taldean aurrezki-kontu bat baino ohikoagoa da pentsio-plan bat edukitzea.

Finantza aktiboak edukitzea (akzioak edo inbertsio-funtsak) ez da aurrekoak bezain ohikoa, eta ehunekoa 13 ingurukoa da.

Finantza-produktuak eskuratzeari dagokionez, biztanleen ehuneko 38k aurrezkiak, aseguruak edo zorrak kudeatzeko tresnaren bat eskuratu du (banaka edo era kolektiboan), inkesta egin aurretiko bi urteetan. Finantza-produktu eskuratuena kreditu-txartela da (biztanleen % 16k eskuratu dute), eta bigarrena mailegu pertsonalak dira (% 14k). Aurrezkiak kudeatzeko tresnei dagokienez, biztanleen % 11k aurrezki-kontu bat eskuratu du azken bi urteotan, eta % 6k akzioak edo inbertsio-funtsak eskuratu ditu.

Aurrezkiak kudeatzeko finantza-produktuak dituzten pertsonak errenta- eta hezkuntza-maila handiagokoak dira: Lehen Hezkuntzako ikasketak dituzten pertsonen % 2k akzioak edo inbertsio-funtsak eskuratu dituzte; eta unibertsitateko ikasketak edo ikasketa baliokideak dituztenen % 9k eta % 12k eskuratu dituzte, hurrenez hurren. Aitzitik, zorrak hitzartzeko kopuruak ez dira hain handiak, hezkuntza- eta errenta-mailen arabera.

Aurrezkiak, aseguruak edo zorrak kudeatzeko tresnaren bat azken bi urteotan eskuratu dituztenen % 62k ez dute beste aukera bat aztertu, edo enpresa edo erakunde berak eskaintzen zituen produktuak aztertu dituzte. Zer produktu eskuratu erabakitzeko informazio-iturri eraginkorrena produktuari lotutako iturri espezifikoak izan da (hau da, erakundeak langileen edo liburuxken bitartez ematen duena). Akzioak erosi dituztenen % 50ek iturri hori aipatu zuten; eta inbertsio-funtsen % 80k, ere bai. Inkesta egin aurretiko bi urteetan, produktu bat erosi zutenen % 12k produktuen arteko konparazio-tresnei jarraitu zieten. Akzioak erosi zituztenen % 27k informazio-tresna garrantzitsutzat jo zuten; eta pentsio-planak, maileguak edota kreditu-txartelak eskuratu zituztenen % 10entzat ere iturri garrantzitsua izan zen.

Azkenik, familiek aurrezkiak edo zorrak kudeatzeko zer finantza-produktu erabiltzen dituzten ere galdetzen zen finantza-gaitasunei buruzko inkestan. Aurrezkiak kudeatzeko baliabiderik ohikoena dirua kontu korrontean metatzea da: dirua aurrezten dutenen % 63k aipatu du. Aurrezkiak bideratzeko beste tresna batzuk erabiltzen dituzten biztanleen ehunekoa txikiagoa da: % 14k aurrezki-kontu bat erabiltzen du; eta % 11k, ekarpenak egin ditu pentsio-planetan, azken hamabi hilabeteotan.

Bestalde, pertsona askok finantza-sistematik kanpoko baliabideak erabiltzen dituzte, aurrezkiak kudeatzeko. Adibidez, biztanleen % 38k esku-dirutan metatzen ditu aurrezkiak; eta, ehunekoa bestelakoa izan arren, adin-, hezkuntza- edo errenta-talde guztietan erabiltzen dute aukera hori. Aktibo ez daudenen edo langabezia daudenen % 53k erabiltzen dute.

2018-2021 ALDIAN BETETZEKO HELBURUAK ETA EKINTZAK

Finantza Hezkuntzako Planaren ondoz ondoko etapatan lortutako esperientzia oinarri hartuta eta erakunde sustatzaileek plana ikuskatzean eskuratu dituzten ezagutzak ere baliatuta, hurrengo urteetan lehentasuna emango zaie zenbait jarduketari, estrategia nazionalean; eta, beste lehentasun batzuk zehaztekoan, horiek ere gehitu ahalko dira. Segidan, jarduketa horiek eta barne hartzen dituzten helburuak azalduko ditugu.

Finanzas para Todos marka bultzatzea eta komunikazio-estrategia

Finanzas para Todos marka Finantza Hezkuntzako Planaren marka da, eta atributu nagusiak erabilgarritasuna, fidagarritasuna, zorrotasuna eta neutraltasuna dira, izen horren mende bilduta.

2018-2021 aldian, lehen aipatutako atributuak finkatzeaz eta indartzeaz gain, marka garrantzitsua eraikitzen jarraitu nahi da, erabiltzaileari balorea eta konfiantza sentiarazteko eta antzekoak diren beste ekimen batzuetatik bereizteko.

Finanzas para Todos marka sendotu ahal izateko, funtsezkoa da www.finanzasparatodos.es webgunean jardutea, hori baita Finantza Hezkuntzako Planak duen bide nagusia.

Horretarako, webgunea sakon aldatuko da 2018-2021 aldian: edukien estrategia, arkitektura eta, ondorioz, programazioa aldatuko dira. Ezinbestekoa da webgunea eskuragarriagoa izan dadin, gailu mugikor guztietara egokituta. Horrez gain, planeko kide laguntzaileei webguneko zona bat erreserbatuko zaie, eta finantza-hezkuntzari lotutako tresnak eta materialak horren bitartez ezagutarazi ahalko dituzte; hortaz, erakundeen arteko elkartrukea sustatzeko ere balioko du.

Webgunearen aldaketa dela eta, komunikazioa espezifikoki lantzeko estrategia bat landuko da, epe luzerako. Helburuak publikoaren arreta bereganatzea eta finantza-hezkuntzari buruzko interesa sortzea izango dira. Landu behar diren edukiak zabalak izateaz gain, beharrezkoa da erabilgarri dauden komunikazio-kanal guztiez baliatzea, erabakitako ekimenak ahalik eta gehien hedatzeko.

Ildo horretatik, 2018-2021 aldian teknologia eta informazio-bide berrien alde egingo da; bereziki, kostuaren eta ekintzen balizko irismenaren arteko erlazioa egokia bada. Horrek ez du inola ere ekarriko ohiko hedabideak erabiltzeari uztea (prentsa, irratia edo telebista, besteak beste); izan ere, biztanle batzuek gaur egun mugatuta daukate teknologia berriak erabiltzeko aukera.

Hori dela eta, publikoak segmentutan banatu beharko dira eta Finanzas para Todos markaren balio-proposamena segmentu horien arabera egokitu beharko da, hizkuntza eta komunikazio-kanalak behar bezala zainduz.

Erreforma horren bitartez, www.finanzasparatodos.es web-ataria Espainiako finantza-hezkuntzan erreferentzia izatea lortu nahi dugu, baita finantzari buruzko zalantzak argitzeko erreferentzia nagusia ere. Atariaren bidez, informazio erabilgarria, zorrotza eta neutroa emango dugu, kalitateari eta inpartzialtasunari lotutako mailarik handienak bermatuta. Horrez gain, norberaren finantzei buruzko ikuspegia ere emango da.

Digitalizazioa eta finantza-hezkuntza

Planean garrantzia ematen diogu finantza-produktuak eta -zerbitzuak digitalizatzeari, eta, ondorioz, finantza digitaletan trebatu beharri ere bai. Berez, gai hori nazioarteko esparruan ere jorratzen da. Txina taldeak 2016an buru-lana egin zuenetik, hau da, hasieratik, G20 taldeak arreta handia eman die eta emango die finantza-zerbitzu digitalek egungo eta etorkizuneko erabiltzaileek sortzen dizkien aukerei eta erronkei.

Finantza Hezkuntzako Planean ere kontuan hartzen ditugu finantza-hezkuntza digitalak sortzen dituen aukerak eta erronkak; hortaz, laurteko honetan, finantza-hezkuntza sustatzeko helburuari jarraikiz, finantza-hezkuntzaren arloko ekimenak identifikatzeko eta sustatzeko lana egingo dugu.

Horrez gain, orokorrean, finantza-hezkuntza hobetu nahian, ohiko programekin eta tresnekin batera, aplikazioak, softwarea edo tresna digitalak ere erabiliko dira, baldin eta finantza-hezkuntza eskuratzen laguntzen badute, finantzen erabiltzaileen gako-gaitasunak indartzen badituzte, eta finantzen kudeaketaren eta kontrolaren eremuko gaitasunak handitzeko baliagarriak badira.

Finantza Hezkuntzaren Eguna finkatzea

Era berean, 2018-2021 aldian bereziki garrantzitsua izango da Finantza Hezkuntzaren Eguna ekimen gisa finkatzea. 2017a arte, hiru aldiz antolatu da, eta haren eragina gero eta handiagoa izan da. Fase berrian erakunde parte-hartzaileen kopurua handitzeko asmoa dago, eta ekimenaren hartzaileen kopurua ere handitu eta dibertsifikatu nahi dugu.

Aldi berean, Finantza Hezkuntzako Planak parte hartuko du administrazio publikoek, unibertsitateek edo fundazioak antolatutako jardunaldi, mintegi, ikastaro, solasaldi, azoka eta hitzaldi gehiagotan.

2018-2021 aldian, planeko kide sustatzaileek finantza-hezkuntzari buruzko nazioarteko ekimenetan parte hartzen dutenean —adibidez, IOSCO erakundeak antolatzen duen *World Investor Week* ekimenean—, aukera baliatuko da Finantza Hezkuntzaren Eguna eta Espainiako herritarren finantza-kultura hobetzeko xedez egiten den edozein ekimen sustatzeko eta indartzeko.

Publikoa ezagutzea eta finantza-hezkuntzari lotuta zer behar duen jakitea

Orokortasuna planaren funtsezko printzipioa da, eta berekin dakar biztanleak segmentutan banatu beharra, finantza-hezkuntza hobea emateko eta diseinatzeko, eta pertsona bakoitzaren ezaugarrien arabera hobeto egokitzeko.

Finantza Hezkuntzako Planaren aurreko etapetan, lehenetasuna eman zitzaien eskola-adineko biztanleei, eta haiei bideratu zitzaien egindako lanaren zati handi bat. Helburu estrategikotzat hartuta, Finantza Hezkuntzari buruzko programa eskola etapen sartzen jarraitu nahi dugu; baina, horrez gain, Finantza Hezkuntzako Planean 2018-2021 aldian arreta berezia eman nahi diegu finantza-hezkuntzaren behar handiagoa duten kolektiboek. Horren harira, *xede-segmentuak* hautatu nahi ditugu, efizientzia, eskuragarritasuna eta bideragarritasuna kontuan hartuta.

Finantza-gaitasunei buruzko inkesta nazionalean lortu diren emaitzak aztertzea oso erabilgarria izango da Finantza Hezkuntzako Plana sustatzen duten erakundeek publikoa hobeto ezagutzeko. Inkestaren emaitzek erakusten dute Espainiako herritarrek zer joera, ohitura eta jokabide dituzten, finantza-produktuen kontsumoari lotuta. Horregatik, jarduketa zehatzak egin ahalko dira, eraginkorragoak eta hobeto bideratuak.

Illo horretatik, finantza-gaitasunei buruzko inkestaren lehenengo emaitzei jarraikiz, aztertu egingo dugu honako kolektibo hauek xede-hartzailatzat hartzen dituzten ekimenak egitea komeni den: 18 eta 34 urte bitarteko pertsonak, emakumeak, 65 urtetik gorako pertsonak, errenta txikiko taldeak eta Lehen Hizkuntzako ikasketak baino ez dituzten pertsonak.

Era berean, Finantza Hezkuntzako Planeko kide laguntzaileek ematen dituzten datuak ere kontuan hartuko dira. Are gehiago, kolektiboak identifikatzeko prozesuan funtsezko eginkizuna beteko dute, publiko hartzaileei eta publiko horien beharrei buruzko informazioa eman ahal dutelako

Horrez gain, inkestaren emaitzek adierazten dute inbertsioak egiteko eta aseguruak kontratatzeko kultura ez dagoela oso erroturik Espainian; hortaz, laguntzaileen bidez, kultura hori ezagutzeko jarduketak egiteko aukera aztertuko dugu.

Hori guztia gorabehera, jarduketa zehatzak erabaki aurretik, sakonago hausnartu eta aztertu beharko dira inkestaren emaitzak. Hona hemen inkestaren lehenengo emaitzak:

- Inkestaren emaitzak aztertuta, lehenik eta behin ondorioztatu dugu unibertsitate-ikasketak edo ikasketa baliokideak dituzten taldeetan ere gaitasun zehatz batzuk falta direla (inflazioari buruzko galdera zuzen erantzun duen unibertsitate-titulu edo titulu baliokidea duten pertsonen ehunekoa Alemanian edo Finlandian biztanleen guztizko ehuneko bera da, edo txikiagoa, prestakuntza txikiagoa duten taldeak ere barne).
- Bigarrenik, herritarren praktika orokortu batzuen arabera, pentsa liteke finantza-inklusioa falta dela: esaterako, talde guztietan nagusitzen da aurrezkiak esku-dirutan metatzea (unibertsitate-ikasketak edo ikasketa baliokideak dituztenak ere barne hartuta).

Kide laguntzaileen eginkizuna indartu beharra, finantza-hezkuntza gizarte-kolektibo espezifikoaren artean sustatzeko

Entitate edo erakunde batzuek, publikoek zein pribatuek, kalitate handiko finantza-hezkuntza eta dibulgazio-materialak dauzkate, eta egitasmoak eta ekimenak antolatzen dituzte, bereziki, kolektibo batzuei finantza-hezkuntza eta aholkuak emateko. Entitate eta erakunde horiekin, hain zuzen ere, maizago jarri gara harremanetan 2013-2017 aldian.

Erakunde horiek Finantza Hezkuntzako Planean parte hartzen dute, eta finantza-hezkuntza nazio-eremuan hobeto hedatzen eta hezkuntzaren azpiegitura sendotzen laguntzen dute. Era berean, planaren bederatzi urteko indarraldi honetan jasotako esperientziak erakusten du, kide laguntzaileen sari handia edukiz gero, errazagoa dela informazioa xede-hartzaile gehiagori helaraztea, eta, horren ondorioz, ekimenek eragin handiagoa izatea, esperientziak banatzea eta baliabideak partekatzea.

Horregatik, 2018-2021 aldian, laguntzaileen sarea handituko dugu, Finantza Hezkuntzako Planaren aplikazio-eremua handitzeko, eta arreta handiagoa behar duten beste kolektibo batzuei lagundu ahal izateko (adibidez, adineko pertsonen, ekintzaileen eta aurreko atalean aipatutako kolektiboen).

Finantza Hezkuntzako Planean laguntzaile gehiago sartzeari errazagoa izan dadin, lankidetzaren hitzarmenak sinatu beharrean, hau da, gaur egungo sistemaren ordez, beste mekanismo bat ezarriko dugu, eta errazagoa eta azkarragoa izango da: Jardun Protokolo Orokorra. Protokolo hori Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 Legeak ezarritako aldaketen arabera izango da (urriaren 1eko 40/2015 Legea), eta Finantza Hezkuntzako Planeko kide laguntzailea izateko izapide errazagoak bilduko ditu.

Protokolo horretan bereziki zainduko da finantza-hezkuntzarik ezak sortutako arazo nagusiak izaten dituzten kolektiboen ikuspegiak planera ekarri ahal dituzten laguntzaileen sarbidea sustatzea. Kolektibo horiek dira, besteak beste, finantza-zerbitzuen erabiltzaile bereziki ahulak eta finantza-inklusio txikia duten pertsonak.

Gainera, Finantza Hezkuntzako Planeko kide laguntzailea izan nahi duten erakundeek aurretiazko eskakizun batzuk bete beharko dituzte, finantza-hezkuntzarekin duten konpromisoa bermatzeko.

Era berean, Finantza Hezkuntzako Planeko kide laguntzaileei protagonismo handiagoa emate aldera, planaren gaur egungo gobernantza-plana hurrengo urteetan aldatuko da, eta kide laguntzaileek erabakiak hartu ahalko dituzte, planean bertan.

VI. eta VII. eranskinetan jasota daude Finantza Hezkuntzako Planeko kide laguntzailea izateko bete behar den prozedura eta Jardun Protokolo Orokorra. Hala dagokionean, kide laguntzaileek protokolo hori betetzeko hitza eman beharko dute.

Eskolako ikasleei zuzendutako finantza-hezkuntza sustatzea

Finantza-hezkuntza bultzatzeko estrategia nazionalaren helburu nagusietako bat finantza-hezkuntza ikastetxeetan sustatzea izan da, hasiera-hasieratik.

Hurrengo aldian, hots, 2018-2021 aldian, finantza-hezkuntzari buruzko eskola-programaren ezarpena eta garapena indartu nahi ditugu.

Eskola Programa sustatze aldera, aldizkako bilerak egiten jarraituko dugu, hezkuntza-sektoreko askotariko eragileekin: Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioarekin, hezkuntza-sailekin, hezkuntza-elkarteekin, gurasoen elkarteekin eta abarrekin. Bilera horien bitartez, finantza-hezkuntza sustatzeko egin daitezkeen ekintzei buruzko informazioa biltzen saiatuko gara, batetik; eta, bestetik, hezkuntza-berrikuntzarako baliaagarriak izan daitezkeen tresnak edo praktikak ere ezagutuko ditugu.

Nazioartean eta Espainian agerikoa da finantza-hezkuntzari buruzko ikastaroen eragina; hortaz, Finantza Hezkuntzako Programaren edukiak berrikusiko ditugu, batez ere, bigarren mailako hezkuntzari erreparatuta. Horrez gain, hala dagokionean, edukiak eguneratuko ditugu, eta teknologia aldakorretara moldatutako baliabide berriak sortu edo eskainiko ditugu.

Finantza Hezkuntzako Planak sustatzen du Espainiak PISA Finantza Gaitasuna 2021 ekimenean parte har dezan. Horrek erakusten du biziki kezkatzen zaigula gazteenen finantza-hezkuntza.

Bestalde, material berriak sortuko ditugu, Lehen Hezkuntzako irakasle eta ikasleei eskaintzeko. Neska-mutilek gero eta harreman hurbilagoa daukate diruarekin; txikietatik publizitatea jasotzen dute, eta gurasoei eskatzen diete produktuak erosteko. Hori dela eta, adin goiztiarretik irakatsi behar zaie zentzuz kontsumitzen. Finantza-hezkuntza bereziki garrantzitsua da etapa horretan, «Finantza Hezkuntza, ikastetxeetan» deritzon atalean adierazi bezala, bai eta bertan bildutako erreferentzietan ere.

Dena den, 2018-2021 aldian beste ekintza batzuk proposatuko ditugu, unibertsitate-eta lanbide-heziketako ikasleei ere zuzenduta.

Finantza Hezkuntzako Planaren eta Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren arteko lankidetzak funtsezkoa da Lehen Hezkuntzako, Unibertsitateko eta Lanbide Heziketako prestakuntza-ekimenak elkarrekin garatu ahal izateko.

ONDORIOAK

Dokumentu honetan azaldu ditugu, batetik, azken bost urteotan egin ditugun ekintzak; eta, bestetik, hurrengo aldian, hots, 2018-2021 bitartean, garatzea proposatzen ditugun ekintzak.

Esperientziak erakutsi digu XXI. mendeko gizartean gako-gaitasun bihurtu dela finantza-hezkuntza izatea: norberaren finantzak kudeatu beharra etengabe izaten baitugu gure bizitzan, eta finantzak oso lotuta baitaude ongizate pertsonalari eta sozialari. Arlo hori behar bezala ezagutzen bada, aukera gehiago daude zentzuzko erabakiak hartzeko, eta ondo informatuta egoteko. Gainera, norberaren askatasunaren printzipioa berresten du.

Finantza Hezkuntzako Plana bederatzi urtean egon da indarrean; hortaz, garbi dago bide luzea daukagula egiteko. Hurrengo aldian, finantza-gaitasunei buruzko inkestan jasotako emaitzen balioa azpimarratuko dugu, eta erronka zein jardun-ildo berritzaileak ezarriko ditugu, herritarren finantza-hezkuntza hobetzen lagunduko digutelakoan. Hori izango da, hain zuzen ere, bide horretako mugarri garrantzitsuenetako bat.

Halaber, hurrengo urteetan herritarren sentsibilitatea areagotzen jarraitu beharko dugu, finantza-hezkuntzaren arloan. Finantza Hezkuntzaren Eguna, duda barik, lagungarria izango da alderdi hori indartzeko, eta biztanle-segmentuetan finantza-hezkuntza sartzen lagunduko du.

2018-2021 aldian betetzeko ezarri diren helburuei helduko badiegu, inoiz baino beharrezkoagoa izango da kide laguntzaileen inplikazioari eustea. Izan ere, haiei eskertu nahi diegu urteotan eman duten laguntza. Haiek egiten duten ekarpena ezinbestekoa da, finantza-hezkuntza sustatzeko estrategia nazionala garatu ahal izateko.

Azkenik, Finantza Hezkuntzako Planak, Espainiako Bankuak eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak sinatu duten lankidetzeta-hitzarmenaren babespean, erakusten du finantza-hezkuntzaren politika osoa aplikatzen jarraitu behar dela, eta komeni dela. Urte hauetako jardunak eta beste herrialde batzuetan egindako ekimenen bitartez eskuratu dugun eskarmentuak berresten dute behar hori benetakoa dela. Bestalde, esperientziak erakutsi digu emaitzak epe luzean baino ezin izango ditugula ezagutu: finantza-hezkuntza ez baita xedea, herritarren jokabideak eta jarrerak aldatzeko eta hobetzeko tresna baizik.

ERANSKINAK

I. ERANSKINA: FINANTZA-HEZKUNTZAREN ARLOKO ESTRATEGIA NAZIONALAK DISEINATZEN ARI DIREN EDO JADA EZARRI DITUZTEN HERRIALDEAK

Estrategia nazionala berrikusten edo bigarren estrategia ezartzen ari diren herrialdeak

Australia	Singapur
Txekiar Errepublika	Eslovakiar Errepublika
Japonia	Espainia
Malasia	Erresuma Batua
Herbehereak	Estatu Batuak
Zeelanda Berria	

Lehen estrategia nazionala garatzen ari diren herrialdeak

Armenia	Israel
Belgika	Korea
Brasil	Letonia
Kanada	Maroko
Kroazia	Nigeria
Danimarka	Portugal
Estonia	Errusiar Federakundea
Ghana	Eslovenia
Hong Kong (Txina)	Hegoafrika
India	Suedia
Indonesia	Turkia
Irlanda	

Estrategia nazionala diseinatzen ari diren herrialdeak

Argentina	Pakistan
Txile	Paraguai
Txina	Peru
Kolonia	Polonia
Costa Rica	Errumania
Salvador	Saudi Arabia
Frantzia	Serbia
Guatemala	Tanzania
Kenya	Tailandia
Kirgizistan	Uganda
Libano	Uruguai
Malawi	Zambia
Mexiko	

II. ERANSKINA: FINANTZA-HEZKUNTZAREN ARLOKO EKIMENETAN APLIKATZEKO JARDUNBIDE EGOKIEN KODEA

JARDUNBIDE EGOKIEN KODEA, FINANTZA-HEZKUNTZAREN ARLOKO EKIMENETAN APLIKATZEKO

Testuingurua eta zioak

Finantza Hezkuntzako Planak esparru zehatza ezartzen du finantza-hezkuntzari buruzko ekimenak garatzeko eta ekimenen jardun-ildoak definitzeko. Horren harira, beharrezkoa izango da plana sustatzen duten erakundeen eta planeko kide laguntzaileen lana koordinatzea, finantza-hezkuntza ahalik eta pertsona zein biztanleriako segmentu kopuru handienari eskuratzeko.

Ildo horretatik, Ekonomiako Lankidetzak eta Garapenerako Erakundeak¹⁴ ezarri dituen printzipioei jarraikiz, sektore pribatuko erakundeen inplikazioak askotariko abantailak ekartzen ditu: haien ezagutzengatik eta informazioa herritar askori helarazteko duten baliabideengatik. Erakunde horiek parte hartzen dutenean, biziki laguntzen dute finantza-hezkuntzari buruzko ekimenak eta materialak aberasten. Hori horrela bada ere, kide laguntzaileen parte-hartzeak bidezkoa eta inpartziala izan behar du; bestela, bezeroak bereganatzeko merkataritza-jardueratzat edo bezero errentagarrienei aholku emateko tresnatzat hartuko litzateke.

Ildo horretatik, aurreko eragozpenak saiheste aldera, batetik, eta, bestetik, erakundeen merkataritza-jardueraren eta haiek garatzen dituzten finantza-hezkuntzari buruzko ekimenen artean balizko interes gatazkarik egon ez dadin, Ekonomiako Lankidetzak eta Garapenerako Erakundeak jokabide-kodeak garatu beharra ezartzen du, eta finantza-hezkuntzaren arloko ekimenetan aplikatu beharko dira. Kode horien bitartez, finantza-hezkuntzaren kalitatea eta inpartzialtasuna bermatu nahi dira, finantza-hezkuntza finantza-erakundeen eskutik ematen denean.

Horren ondorioz, Finantza Hezkuntzaren arloko Ekimenetan aplikatzeko Jardunbide Egokien Kode hau (aurrerantzean, «kodea») Ekonomiako Lankidetzak eta Garapenerako Erakundearen gomendioei jarraikiz egin dugu, eta ekimenen garapenean aplikatu ahal diren printzipio batzuk definitu beharra abiapuntutzat hartu dugu. Finantza-hezkuntzaren arloko ekimenen kopurua gero eta handiagoa da, eta finantza-sektoreko gero eta erakunde gehiagok parte hartzen dute; hortaz, mekanismoak ezarri behar dira, erakundeen esku-hartzea haztatzeko eta gerta daitezkeen gatazkek gutxiagotzeko.

¹⁴ Ikus [OECD/INFE Guidelines for private and not-for-profit stakeholders in financial education.2014ko azaroa.](#)

Kodearen borondatezko izaera

Kode honen xede nagusia mekanismo bat osatzea da, kalitate handiko finantza-hezkuntza inpartziala sustatzen eta garatzen laguntzeko. Horrela bada, finantza-hezkuntza balio erantsia sortzeko elementutzat hartu ahalko da, ospe onekoa eta gizartea berritzeko baliagarria. Finantza-ezagutzak ematen dituzten erakundeek osatuko dute, herritarren sentsibilitate berriei erantzuna emateko.

Xede nagusi hori abiapuntutzat hartuta, kode honetan zenbait printzipio eta jardunbide egoki bildu ditugu, eta finantza-hezkuntzaren arloko ekimenak garatzen dituzten erakundeek borondatez bete ahalko dituzte.

Edukia

- I. HELBURUA
- II. IRISMEN OBJEKTIBOA
- III. IRISMEN SUBJEKTIBOA
- IV. FINANTZA-HEZKUNTZAREN ARLOKO PRINTZIPIO APLIKAGARRIAK
- V. FINANTZA-HEZKUNTZAREN ARLOKO EKIMENEN EDUKIA
- VI. FINANTZA-HEZKUNTZAKO HEZITZAILEAK
- VII. FINANZAS PARA TODOS MARKAREN ERABILERA
- VIII. FINANTZA-HEZKUNTZAREN ARLOKO EKIMENEN EBALUAZIOA
- IX. KODEA INTERPRETATZEA
- X. KODEAREN INDARRALDIA HASTEA ETA APLIKAGARRITASUNA

I. HELBURUA

Dokumentu honetan bildu ditugu Espainian finantza-hezkuntzari buruz garatzen diren ekimenei aplikatu ahal zaizkien printzipioak, zertarako eta ekimenak gauzatzeko behar diren inpartzialtasuna, kalitatea eta gardentasuna bermatzeko.

II. IRISMEN OBJEKTIBOA

- II.1 Aquest document és aplicable a les iniciatives d'educació financera desenvolupades a Espanya. És especialment aplicable a les iniciatives d'educació financera que es desenvolupin en el marc del Pla d'Educació Financera.
- II.1. Dokumentu hau aplikatu ahal izango zaie Espainian finantza-hezkuntzaren arloan egiten diren ekimenei; eta, bereziki, Finantza Hezkuntzako Planaren esparruan egiten diren finantza-hezkuntzaren arloko ekimenei.
- II.2. Hauxe da **Finantza Hezkuntzako Plana** (aurrerantzean, «plana»): Espainiako Bankuak, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak eta Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak (aurrerantzean, «plana sustatzen duten erakundeak») 2008tik aurrera sinatu dituzten lankidetzeta-hitzarmenei jarraikiz, finantza-produktuen eta -zerbitzuen kontsumitzaileen eta erabiltzaileen finantza-kultura hobetzeko estrategia nazionalako esparruan zehaztu diren helburuen eta jarduketan multzoa.
- II.3. **Finantza-hezkuntza** prozesu bat da, eta finantza-inbertitzaileek eta -kontsumitzaileek hauxe lortzen dute prozesu horretan:
- A. Finantza-produktuak, -kontzeptuak eta -arriskuak hobeto ulertzea.
 - B. Informazioaren, ikasketen edo aholku objektiboen bitartez, trebetasunak eta konfiantza garatzea, finantza-arriskuak eta aukerak hobeto bereizteko.
 - C. Erabaki informatuak hartzen ikastea.
 - D. Aurrezteko eta gastua antolatzeko ohiturak garatzea.
- II.4. Hauxe hartzen da **finantza-hezkuntzaren arloko ekimentzat**: III. atalean zehaztatuta dauden erakundeek garatzen duten edozein ekintza, material edo baliabide, edozein formatutan eginda, baldin eta II.3 atalean zerrendatutako helburuak lortzeko egiten bada. Finantza-hezkuntzaren arloko ekimenak dira, adibidez, baina horietara mugatu gabe, finantzari buruzko hitzaldiak, mahai-inguruak, lantegiak, mintegiak, webguneak, liburuxkak, gidaliburuak, liburuak edogidak. Bestalde, adituei edo etorkizuneko adituei zuzentzen zaien prestakuntza edo finantza-sektoreko prestakuntza akademikoa ez dira joko finantza-hezkuntzaren arloko ekimentzat.

III. IRISMEN SUBJEKTIBOA

Kode hau aplikatu ahal zaie finantza-hezkuntza irakatsi nahi duten erakunde publikoei edota pribatuei, irabazi-asmorik izan zein ez. Bereziki, honako erakunde hauek daude kode honen aplikazio-eremuan:

- Finantza-zerbitzuak ematen dituzten erakundeak, hala nola bankuak, aseguru-enpresak edo inbertsio-funtsak.
- Finantza-hezkuntza ematen duten erakundeak, haien jardunaren berezko produktu edo zerbitzutzat hartuta, hala nola prestakuntza-enpresak edo kontsulta-enpresak.
- Finantza-sektoreko irabazi-asmorik gabeko erakundeak, hala nola sektore-taldeak.
- Finantza-sektoreari lotuta ez dauden eta irabazi-asmorik ez duten erakundeak, baldin eta finantza-hezkuntza interesatzen bazaie: esaterako, gobernuz kanpoko erakundeak, kontsumitzaileen elkarteak, irakasleen elkarteak edo ikerketa-institutuak.

IV. FINANTZA-HEZKUNTZAREN ARLOKO PRINTZPIO APLIKAGARRIAK

Finantzako hezkuntza-emaileek honako printzipio hauek bete beharko dituzte:

- **Inpartzialtasunaren printzipioa**

Finantzako hezkuntza-emaileek ez dituzte finantza-hezkuntzaren arloko ekimenak erabiliko, merkataritza-xedeak betetzeko marketin- edo publizitate-ekimen gisa. Finantzako hezkuntza-emaileek informazio objektiboa, inpartzial eta aurreiritzirik gabea eman beharko dute ekimen horietan.

Ildo horretatik, lehenetsuna eman beharko zaie kontsumitzaileen interesei, eta finantzako hezkuntza-emaileek ez dituzte finantza-hezkuntzaren arloko ekimenak erabiliko bere produktuak edo zerbitzuak iragartzeko edo lehiakideenak kritikatzeko.

- **Zehaztasunaren printzipioa**

Finantza-hezkuntzaren arloko ekimenetan informazio argia, zehatza, osatua, eguneratua eta benetakoa emango da, dagozkien gaiei buruz.

- **Gardentasunaren printzipioa**

Finantza-hezkuntzaren arloko ekimenetan informazio gardena emango da, dagozkien gaiei buruz. Zehatz-mehatz, gai horiei buruz dauden ikuspegiak azalduko dira, gaien gaineko ikuspuntu globala emateko, inolako isuririk gabe.

V. FINANTZA-HEZKUNTZAREN ARLOKO EKIMENEN EDUKIA

- **Helburuak.** Finantza-hezkuntzaren arloko ekimenetan argi ezarri beharko da zer helburu bete nahi den, zer gai jorratuko den eta norentzat prestatu diren.
- **Hizkuntza.** Finantza-hezkuntzaren arloko ekimenetan hizkuntza erraza, pedagogikoa eta egokia erabili beharko da, xede-hartzaileen ezaugarriak kontuan hartuta. Halaber, behar espezifikoak dituzten hartzaileak direnean, haien ezaugarrien arabera ere moldatu beharko dira.
- **Edukia.**
 - Finantza-hezkuntzaren arloko ekimenen edukiaren xedeak gaia errazago ulertzen laguntzea izan behar du, eta xede-hartzaileen ezaugarrien arabera moldatu beharko da.
 - Finantza-hezkuntzaren arloko ekimenen edukia berariaz identifikatu beharko da, eta argi bereizi beharko dira finantza-hezkuntzarako materialak eta publizitate- edo merkataritza-materialak. Horren harira, publizitate- edo merkataritza-materialtzat joko da finantza-produktuak edo -zerbitzuak zuenean edo zeharka promozionatzen dituen materiala.
 - Finantza-hezkuntzaren arloko ekimenak eta publizitate- edota merkataritza-ekimenak guztiz bereizita eta modu independentean egingo dira. Horrez gain, eduki mota biak ezin izango dira inola ere jaso euskarri edo formatu berean.
- **Lankidetzak.** Finantzako hezkuntza-emaileak finantza-hezkuntzaren arloko ekimenak ikastetxeetan edo institutuetan egiten baldin baditu, ekimen horiek ikastetxe horretako irakasle baten ikuskaritzapean egin beharko dira.
- **Logotipoa edo marka erabiltzea.**
 - Finantzako hezkuntza-emaileak irabazi-asmorik gabeko erakundeak baldin badira, beren logotipoa edo marka erabili ahalko dute finantza-hezkuntzaren arloko ekimenetan. Erabilera horrek egokia eta orekatua izan beharko du, eta marka edo logotipoa ez da erakutsiko finantzako hezkuntza-emailea identifikatzeko xedez baino.
 - Finantzako hezkuntza-emaileek irabazi-asmoa baldin badute, haien egiten dituzten finantza-hezkuntzaren arloko ekimenetan saiatuko dira beren logotipoa edo marka ez erabiltzen. Finantzako hezkuntza-emaile bat sektoreko antolakunde bateko kidea baldin bada, antolakunde horretako logotipoa edo marka erabili ahalko du. Erabilerak orekatua izan beharko du, eta sektoreko antolakunde hori identifikatzeko xede bakarrez egin beharko du.

VI. FINANTZA-HEZKUNTZAKO HEZITZAILEAK

- Finantzako hezkuntza-emaileak pertsona batzuei —langileak, borondatezko hezitzaileak edo kanpoko langileak izanda ere— finantza-hezkuntza ematea eskatzen badie (aurrerantzean, «finantza-hezkuntzako hezitzaileak»), pertsona horiek behar bezalako prestakuntza eduki beharko dute, eta jardueraren xedeak betetzeko behar diren baliabideak eduki beharko dituzte.
- Finantza-hezkuntzako hezitzaileek gaiari buruzko programari jarraituko diote, saioak antolatzeko; eta kode honetan ezarritako printzipioen arabera azalduko dituzte.
- Finantza-hezkuntzako hezitzaileak honela aurkeztuko dira, finantza-hezkuntzaren arloko ekimenetan parte hartzen dutenean:
 - o Irabazi-asmorik gabeko erakundeak antolatu baldin badu, finantzako hezkuntza-emaileen izenean jarduten duten langileak direla azalduko dute.
 - o Finantzako hezkuntza-emailea sektoreko antolakunde bateko kidea baldin bada, antolakunde horren izenean jarduten duten langileak direla azalduko dute. Hezkuntza-emaile hori ez bada sektoreko antolakunde bateko kidea, finantza-hezkuntzako hezitzaileak adieraziko du hezitzaile mota hori dela, besterik gabe.

VII. FINANZAS PARA TODOS MARKAREN ERABILERA

- Finanzas para Todos izenak eta markak planaren irudi publikoa osatzen dute, eta Patenteen eta Marken Espainiako Bulegoan behar bezala erregistraturik daude.
- Kode honetan ezarritakoa betetzeak ez dio inolako baimenik ematen finantzako hezkuntza-emaileari, ikur bereizgarri horiek erabil ditzan.
- Hala eta guztiz ere, finantzako hezkuntza-emaileek plana sustatzen duten erakundeekin lankidetzaren hitzarmena sinatu baldin badute, plana sustatzen duten erakundeek ikur bereizgarri horiek hezkuntza-ekimen batean erabiltzeko baimen zehatz eta espresua eskatu ahalko diete.

VIII. FINANTZA-HEZKUNTZAREN ARLOKO EKIMENEN EBALUAZIOA

Eraginkortasun maila zehazte aldera, finantzako hezkuntza-emaileek aldizka ebaluatuko dituzte finantza-hezkuntzaren arloko ekimenak, eta nolako ekimena den, halako baliabideak erabiliko dituzte. Metodo horien bitartez, lortutako emaitzak eta aurrez ezarritakoak erkatu ahalko dira, eta, hala dagokionean, neurri zuzentzaileak hartu ahalko dira. Adibide gisa (horretara mugatu gabe), ebaluazio-metodo horiek parte-hartzearen adierazleak (parte-hartzaileen kopurua, webguneko bisitak eta abar), ezagutzei buruzko galdera-sortak edo gogobetetasun-inkestak izan daitezke.

IX. KODEA INTERPRETATZEA

Kodea interpretatzean zalantzak, kontsultak edo desadostasunak sortzen baldin badira, plana sustatzen duten erakundeek ebatziko dituzte.

X. KODEAREN INDARRALDIA HASTEA ETA APLIKAGARRITASUNA

Kodearen indarraldia 2016ko ekainaren 1ean hasiko da.

III. ERANSKINA: FINANTZA HEZKUNTZAKO PLANEKO KIDE LAGUNTZAILEEN SAREA

HEZKUNTZA

- HEZKUNTZA, KULTURA ETA KIROL MINISTERIOA
- ASOCIACIÓN ESPAÑOLA DE CENTROS PRIVADOS DE ENSEÑANZA
- CONFEDERACIÓN ESPAÑOLA DE CENTROS PRIVADOS DE ENSEÑANZA
- ASOCIACIÓN DE COLEGIOS PRIVADOS E INDEPENDIENTES
- ESCUELAS CATÓLICAS
- UNIÓN ESPAÑOLA DE COOPERATIVAS DE ENSEÑANZA



BANKUAK

- ASOCIACIÓN ESPAÑOLA DE BANCA
- ASOCIACIÓN HIPOTECARIA ESPAÑOLA
- ASOCIACIÓN NACIONAL DE ESTABLECIMIENTOS FINANCIEROS DE CRÉDITO
- CONFEDERACIÓN ESPAÑOLA DE CAJAS DE AHORRO
- UNIÓN NACIONAL DE COOPERATIVAS DE CRÉDITO



KONTSUMOA

- ASOCIACIÓN GENERAL DE CONSUMIDORES
- ASOCIACIÓN ESPAÑOLA DE CONSUMO, SEGURIDAD ALIMENTARIA Y NUTRICIÓN
- UNIÓN DE CONSUMIDORES DE ANDALUCÍA



DESGAITASUNA

- FUNDACIÓN ONCE



AZTERLANAK ETA IKERKETAK

- FUNDACIÓN DE ESTUDIOS BURSÁTILES Y FINANCIEROS
- INSTITUTO ESPAÑOL DE ANALISTAS FINANCIEROS
- FUNDACIÓN AFI
- FUNDACIÓN UCEIF
- INSTITUT D' ESTUDIS FINANCERS
- INSTITUTO BME
- COLEGIO DE ECONOMISTAS DE MADRID



INBERTSIOAK, ASEGURUAK ETA PENTSIOAK

- FUNDACIÓN MAPFRE
- INSTITUTO AVIVA
- ASOCIACIÓN DE INSTITUCIONES DE INVERSIÓN COLECTIVA Y FONDOS DE PENSIONES
- FORO DE INVERSIÓN SOSTENIBLE EN ESPAÑA
- UNIÓN DEMOCRÁTICA DE PENSIONISTAS Y JUBILADOS DE ESPAÑA
- ASOCIACIÓN EMPRESARIAL DEL SEGURO



ETEAk ETA EKINTZAILAZA

- MERKATARITZAKO GANBERA
- CONFEDERACIÓN ESPAÑOLA DE LA PEQUEÑA Y MEDIANA EMPRESA



IV. ERANSKINA: FINANTZA-HEZKUNTZAKO PROGRAMAN SARTU DIREN GAITASUNAK

Gako-Gaitasuna	Finantza-gaitasuna	
MATEMATIKA	Matematika-ezagutzak aplikatu behar dira, dirua egunero erabiltzeak dakartzan arazoak ebazteko. Aldeko jarrera eta segurtasun zein konfiantza handiagoak eskuratzen dira, matematika-elementuak edo -euskarriak biltzen dituzten egoerak eta datuak kudeatzeko (arazoak, ezezagunak eta abarrak ebazteko). Kasu horietan, hain zuzen ere, arazoibideak baliatu behar dira, erabakiak hartzeko eta informazioa ulertzeko.	<ul style="list-style-type: none"> Unitateko prezioa Deskontuak Prezioak erkatzea Proporzionaltasuna Ehunekoak Hirukotearen erregela Interes-tasak: bakuna eta konposatua Buruko kalkulua Dibisen arteko aldatetak Ordainketa-modalitateen arteko kostuak erkatzea
GIZARTE-GAITASUNA	Norberarengan eta, oro har, herritar guztiengan eragina izango duten erabakiak hartzeko trebetasuna garatzeko aukera ematen du.	<ul style="list-style-type: none"> Ekonomiari buruzko erabakien balizko abantailak eta desabantailak aztertzea Hartutako finantza-erabakiek gizartean izaten dituzten ondorioez edo eragin kolektiboaz arduratzea Judizio morala erabiltzea Zentzuz, elkartasunez eta era osasuntsuan kontsumitzen ikastea Ulertzea erabaki ekonomiko guztiak ez direla etikoak (zentzuz kontsumitzea) Jasangarritasunari, elkartasunari, erantzunkidetasunari eta herritartasunari buruzko hausnarketa egitea, ekonomiaren ikuspegitik Gaur egungo arazoak eta egoerak aztertzea (krisia, finantza-albisteak, etab.) Ekonomiaren eta gizartearen arteko mendekotasun-harremana, desberdintasuna eta gatazka ulertzea Irtenbide kolektiboak bilatzea Elkartasun ekonomikoa eta enpatia
EKITEKO SENA ETA JARRERA EKINTZAILEA GARATZEA	Norberak finantza-trebetasunak garatu ahala, beraren autonomia, autoestimua eta identitatea ere indartzu doaz.	<ul style="list-style-type: none"> Finantza-erabakiak hartzea, nor bere irizpideari jarraikiz Proiektuak irudikatzea Ekintzak egitea, plan pertsonalak lortzeko (finantza-helburuak) Proiektu baten garapen-faseak ezagutzea (finantza-plangintza) Aukerak aztertzea eta nor bere burua ebaluatzea (arriku-profila ezagutzea eta arriskua bere gain hartzea) Motibazioa eta sormena sustatzea Nahiak eta beharrak bereiztea Balio eta jarrera pertsonalak garatzea: esaterako, iraunkortasuna, berehalako asetsuna atzeratzeko gaitasuna (aurrezte, helburu bat lortzeko) Arazoei aurre egiteko gaitasuna Hitz egiteko eta negoziatzeko gaitasuna (banku-harremanetan) Asertibitatearen garrantziaz ohartzea, desadostasuna jakinarazteko (banku-harremanetan)
HIZKUNTZA	Ekonomiari eta finantzei buruzko hiztegia ulertzea. Irakasleentzako edukiak eta gidaliburuak hizkuntza koofizial guztietan eta ingelesez ere erabilgarri daude.	<ul style="list-style-type: none"> Gehien erabiltzen diren finantza-siglen esanahia ulertzea (BPG, KPI, UTB, BPGd...) Kontzeptuak bereiztea: esaterako, kreditu-txartelak eta zordunketa-txartelak Nomina bateko elementuak ulertzea Prensa irakurtzen jakitea Finantza-edukiak dituzten dokumentuak idaztea
GAITASUN DIGITALA	Informazio- eta komunikazio-teknologiak (IKT) erabiltzeko entrenamendua egiten da, informazioa bilatzeko, aztertzeko eta hautatzeko.	<ul style="list-style-type: none"> Interneten segurtasun-neurriak hartzea eta erabiltzea Merkataritza elektronikoko eta administrazioko zerbitzuak erabiltzen jakitea Tresnak eta aplikazioak erabiltzea: esaterako, kalkulu-orriak (aurrekontu pertsonala egitea) Eskaintzak eta prezioak aztertzea eta erkatzea Kutxazainak erabiltzea, transferentziak egitea edo beste eragiketa batzuk egitea
IKASTEN IKASTE	Programatzea, erabakiak hartzea eta erantzukizunak onartzea dira ikasten ikaste gaitasunaren osagarriak: ekintza horiek etengabeko ikaskuntza ematen baitute.	<ul style="list-style-type: none"> Finantza-ingurunearen bilakaerak etengabeko ikaskuntza eskatzen du, arlo guztietan.



V. ERANSKINA: AUTONOMIA-ERKIDEGO BAKOITZAK FINANTZA-HEZKUNTZARI BURUZ EZARRI DUEN ARAU-GARAPENAREN MAILA

Autonomia Erkidegoak	Finantza-hezkuntzaren arloko edukiak DBHko 4. mailan ezartzen dituen legeria autonomikoa	Edukiak	Informazio osagarria
Andaluzia	Orden de 14 de julio de 2016, por el que se desarrolla el currículo correspondiente a la educación secundaria obligatoria en Andalucía.	GUZTIAK	
Aragoi	Orden ECD/489/2016, de 26 de mayo, por la que se aprueba el currículo de la Educación Secundaria Obligatoria y se autoriza su aplicación en los centros docentes de la Comunidad Autónoma de Aragón.	GUZTIAK	Finantza-hezkuntzaren arloko ikaskuntza-estandarrak oso ondo garatu dira, eta oinarritzko gaitasunen garapenean finkatu dira.
Asturias	Decreto 43/2015, de 10 de junio, por el que se regula la ordenación y se establece el currículo de la Educación Secundaria Obligatoria en el Principado de Asturias.	GUZTIAK	
Balearrak	Decret 34/2015, de 15 de maig, pel qual s'estableix el currículum de l'educació secundària obligatòria a les Illes Balears	GUZTIAK	Familien parte-hartzea eskatzen da (gurasoena), finantza-hezkuntzako edukien ebaluazio-irizpideak garatzeko.
Kanariak	Ez dago legeria autonomikorik. Irakasgai bakoitzeko, orde, garapen bat ezartzen dute.	GUZTIAK, h) IZAN EZIK	
Kantabria	Decreto 38/2015, de 22 de mayo, que establece el currículo de la Educación Secundaria Obligatoria y del Bachillerato en la Comunidad Autónoma de Cantabria.	GUZTIAK, h) IZAN EZIK	Finantza-hezkuntzaren arloko eduki bakoitza eta oinarritzko gaitasun bakoitzaren garapena lotzen dituzte.
Gaztela-Mantxa	Decreto 40/2015, de 15 de junio, por el que se establece el currículo de Educación Secundaria Obligatoria y Bachillerato en la Comunidad Autónoma de Castilla-La Mancha	GUZTIAK	
Gaztela eta Leon	ORDEN EDU/362/2015, de 4 de mayo, por la que se establece el currículo y se regula la implantación, evaluación y desarrollo de la educación secundaria obligatoria en la Comunidad de Castilla y León	GUZTIAK	

Autonomia Erkidegoak	Finantza-hezkuntzaren arloko edukiak DBHko 4. mailan ezartzen dituen legeria autonomikoa	Edukiak	Informazio osagarria
Katalunia	DECRET 187/2015, de 25 d'agost, d'ordenació dels ensenyaments de l'educació secundària obligatòria.	GUZTIAK, d) eta e) IZAN EZIK	DBHko 3. eta 4. mailetan «Emprenedoria» irakasgaia garatuta dago, finantza-hezkuntzaren arloko eduki batzuk ezarrita (aurrekontua eta norberaren finantzen plangintza, enpresa-esparruko inbertsio produktuen ezaugarriak eta enpresako dibertsifikazioa)
Ceuta	R.D 1105/2015	GUZTIAK	Gaitasun zentralizatuak
Extremadura	Decreto 127/2015, de 26 de mayo, por el que se establece el currículo de Educación Secundaria Obligatoria y de Bachillerato para la Comunidad Autónoma de Extremadura.	GUZTIAK	
Galizia	Decreto 86/2015, de 25 de junio por el que se establece el currículo de educación secundaria y bachillerato en la Comunidad Autónoma de Galicia	GUZTIAK	
Errioxa	Decreto 19/2015, de 12 de junio, por el que se establece el currículo de la Educación Secundaria Obligatoria y se regulan determinados aspectos sobre su organización así como la evaluación, promoción y titulación del alumnado de la Comunidad Autónoma de La Rioja.	GUZTIAK	
Madril	Decreto 48/2015, de 14 de mayo, del Consejo de Gobierno, por el que se establece para la Comunidad de Madrid el currículo de la Educación Secundaria Obligatoria	GUZTIAK	
Melilla	R.D 1105/2015	GUZTIAK	Gaitasun zentralizatuak
Murtzia	Decreto n.º 220/2015, de 2 de septiembre de 2015, por el que se establece el currículo de la Educación Secundaria Obligatoria en la Comunidad Autónoma de la Región de Murcia	GUZTIAK	
Nafarroa	24/2015 FORU DEKRETUA, apirilaren 22koa, Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako irakaskuntzen curriculuma ezartzen duena.	GUZTIAK, h) IZAN EZIK	
Euskal Autonomia Erkidegoa	236/2015 DEKRETUA, abenduaren 22koa, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma zehaztu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duena.	GUZTIAK, h) IZAN EZIK	

Autonomia Erkidegoak	Finantza-hezkuntzaren arloko edukiak DBHko 4. mailan ezartzen dituen legeria autonomikoa	Edukiak	Informazio osagarria
Valentzia	Decreto 87/2015, de 5 de junio, del Consell, por el que establece el currículo y desarrolla la ordenación general de la Educación Secundaria Obligatoria y el Bachillerato en la Comunitat Valenciana	GUZTIAK	Eduki gehigarriak ezarri dituzte: kontsumitzaileen zerga-betebeharrak, zerga-iruzurraren garrantzia eta kontsumo zentzudunaren eta jasangarriaren garrantzia

VI. ERANSKINA: FINANTZA HEZKUNTZAKO PLANEKO KIDE LAGUNTAILEA IZATEKO BETE BEHAR DEN PROZEDURA

I. XEDEA

Prozedura honetan ezartzen dira Finantza Hezkuntzako Planeko kide laguntzaileak —aurrerantzean, «kide laguntzaileak»— izan nahi duten pertsona juridikoek bete behar dituzten eskakizunak, bai eta izendapen horri eusteko bete behar diren arauak ere.

II. KIDE LAGUNTAILEA IZATEKO BETEKIZUNAK

Planeko kide laguntzaileak Espainiako lurraldean eraturako pertsona juridikoak izan ahal dira, baldin eta finantza-hezkuntzaren arloko jarduerak irabazi-asmorik gabe egiten badute.

Finantza-hezkuntzaren arloarekin zuzeneko edo zeharkako lotura duten administrazioez edota organismo publikoek gain, honako eskakizun hauek betetzen dituzten pertsona juridikoak ere Finantza Hezkuntzako Planeko kide laguntzaileak izan ahalko dira:

- Finantza-hezkuntzaren arloko programak edo jarduerak antolatzea, irabazi-asmorik gabe.
- Finantza-hezkuntzarekin zuzeneko edo zeharkako lotura duten arloak ikertzen edo aztertzen jardutea.
- Finantza-hezkuntzaren xede-hartzailatzat hartzen diren herritarrek edo profesional zehatzek osatutako kolektiboak taldekatzea.

Espainiako Bankuak, Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak edota Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiak gainbegiratzen dituzten erakundeak ezin izango dira Finantza Hezkuntzako Planeko kide laguntzaileak izan.

Finantza Hezkuntzako Planeko kide sustatzaileek, III. atalean jasotako prozedurarekin bat etorrira, ziurtagarritako dute erakunde eskatzaileak planeko kide laguntzailea izateko lehenago adierazitako eskakizunak betetzen dituen eta egokia den.

III. KIDE LAGUNTAILEA IZATEKO PROZEDURA

1. Eskaera

Pertsona juridiko batek planeko kide laguntzailea izan nahi baldin badu, mezu elektronikoa bidali beharko du helbide hauetara: finanzasparatodos@bde.es; finanzasparatodos@cnmv.es. Honako datu hauek jaso beharko ditu mezuan:

- Eskatzailearen datuak: izen soziala, xede soziala, telefono-zenbakia, posta-helbidea eta helbide elektronikoa.
-

- Laguntzaile izateko eskaera arrazoitzeko gutun bat.
- Jada garatu dituen edo etorkizunean garatu nahi dituen finantza-hezkuntzaren arloko ekimen nagusiak, txosten batean bilduta.
- Finantza Hezkuntzako Planean berak zertan lagundu ahal duen azaltzeko lankidetzamemoria bat, alderdiak, kontuak edo gaiak, orokorrean, azalduta.

2. Eskaera aztertzea

Finantza Hezkuntzako Planeko kide sustatzaileek eskaera aztertuko dute, eta kide laguntzailea izateko betekizunak betetzen dituen ziurtatuko dute. Beharrezko irizten baldin badiote, erakunde eskatzaileari informazio gehiago emateko eskatuko diote.

3. Ebazpena

Finantza Hezkuntzako Planeko kide sustatzaileek hartzen duten erabakia posta elektronikoz jakinaraziko diote eskatzaileari.

Eskaera onartzen baldin bada, eskatzaileari bidaliko zaio Jardun Protokolo Orokorrari atxikitze dokumentua sinatzeko gonbidapena. Sinadura-ekitaldia formala izango da, eta harrezkero planeko kide laguntzailezat joko da. Bestalde, horrek ez dio inola ere eragingo kide laguntzaileari konpromiso juridiko zehatzen bat bete beharrik.

Eskaera baztertzen baldin bada, ezin izango da horren aurkako errekurtsorik aurkeztu, eta eskatzaile berak ezin izango du beste eskaera bat aurkeztu urtebetea iragan baino lehen.

VII. ERANSKINA: JARDUN PROTOKOLO OROKORRA, KIDE LAGUNTAILEENTZAT

HITZAURREA

- I. FINANTZA HEZKUNTZAKO PLANAREN XEDEA ETA PRINTZIOAK
- II. PROTOKOLOAREN XEDEA
- III. LANKIDETZA-GIDALERROAK
- IV. FINANTZIAZIOA
- V. FINANZAS PARA TODOS MARKAREN ERABILERA
- VI. LAGUNTAILE IZATEARI UZTEA
- VII. PROTOKOLOA ALDATZEA
- VIII. KONFIDENTZIALTASUNA
- IX. INDARRALDIA
- X. PROTOKOLOA INTERPRETATZEA
- XI. LANKIDETZA HITZARMENEN ERREGIMEN IRAGANKORRA

HITZAURREA

- Finantza Hezkuntzako Plana lankidetzaren proiektua da, eta, 2008tik hona, Espainiako Bankuak eta Balore Merkatuaren Batzorde Nazionalak (aurrerantzean, «kide sustatzaileak») sinatu zuten lankidetzaren hitzarmenaren babespean sustatu da. Horrez gain, Aseguruaren eta Pentsio Funtzen Zuzendaritza Nagusiak eta Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusiak ere parte hartzen dute. Haien xede nagusia Espainiako herritarren finantza-hezkuntza hobetzea da.
- Finantza Hezkuntzako Planaren inspirazio-iturri diren printzipioak oinarrituta daude Ekonomiako Lankidetzaren eta Garapenerako Erakundeak onartu dituen hezkuntza-estrategia nazionalerako goi-mailako printzipioetan.
- Ekonomiako Lankidetzaren eta Garapenerako Erakundeak honela definitzen du finantza-hezkuntza: «prozesu bat da, eta prozesu horretan, informazioaren, irakaskuntzaren edota aholkularitza objektiboaren bitartez, finantza-kontsumitzaileek finantza-produktuen kontzeptuak eta arriskuak hobeto ulertzen dituzte; finantza-arriskuak zein -aukerak hobeto bereizteko trebetasunak eta konfiantza garatzen dituzte; eta erabaki informatuak hartzeko, laguntza eske nora jo behar duten jakiteko edota beren finantza-ongizatea hobetzeko edozein ekintza egin ahal izateko behar diren gaitasunak eskuratzen dituzte».
- Finantza Hezkuntzako Planaren helburuak eta xede nagusia betetze aldera (aurrerantzean, «plana»), erakunde publikoen eta pribatuen lankidetzaren behar da, erakundeok ezagutzak, eskarmentua, baliabideak eta malgutasuna ematen dituztelako.
- Testuinguru horretan, 2017a arte 30 erakunde inguruk bat egin dute planarekin, eta gaur egun haiek osatzen dute planeko kide laguntzaileen sarea. Kide laguntzaile izateko izendapena Espainiako Bankuarekin eta Balore Merkatu Batzorde Nazionalarekin lankidetzaren hitzarmenak sinatuz eskuratu da, egun arte.
- Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren Legea (urriaren 1eko 40/2015 Legea) indarrean jarri ondoren, kide laguntzaileen sarea egun arte osatzen zuen lankidetzaren esparrua aldatu behar da. Zehazki, lankidetzaren hitzarmenak sinatu beharrean, Jardun Protokolo Orokorra sinatu behar da, Finantza Hezkuntzako Planeko kide laguntzaileak izan nahi duten erakundearen lankidetzaren asmoa eta xede nagusia hobeto gauzatzen baitira horrela.

Hori dela eta, 2018ko urtarrilaren aurrera, kide laguntzailea izateko izendapena Finantza Hezkuntzako Plana sustatzeko Jardun Protokolo Orokorri atxikiz eskuratuko da (aurrerantzean, «protokoloa»).

I. FINANTZA HEZKUNTZAKO PLANAREN XEDEA ETA PRINTZIOAK

Planaren xede nagusia Espainiako biztanleen finantza-hezkuntza sustatzea da, pertsonen bitzitza osoan.

Honako printzipio hauek plana arautzen dute:

Orokortasuna	Ez du biztanleria-segmenturik baztertzen, hots, finantza-produktu eta -zerbitzu guztiak barne hartzen dira.
Lankidetzatza	Finantza-gainbegirale biek konpromisoa hartzen dute elkarrekin aritzeko eta beste eragile eta erakunde batzuen parte-hartzea sustatzeko.
Jarraipena	Iraunkorra izateko bokazioa dauka.
Aniztasuna	Biztanleria-segmentu bakoitzari heldu behar zaio, egoera bakoitzaren ezaugarriak, beharrak eta sarbideak kontuan hartuta.
Ezagutzak eta eskuragarritasuna	Aukera eman behar die herritar guztiei informazioa eta beren gaitasunak areagotzeko behar dituzten tresnak eskura ditzaten.
Neurtzea eta ebaluatzea	Egindako lana ebaluatu behar da, eraginkortasuna eta hobetze-arloak zehazteko.
Koordinazioa	Efikazia eta efizientzia behar dira, ahaleginik ez gainjartzeko.
Erantzukizuna	Agintariei eta erakunde publiko zein pribatuei esker egiten da. Haien beren gain hartzen dute programa egiteko eta bertan ezarritako helburuak zintzotasunez eta inpartzialtasunez betetzeko konpromisoa.

II. PROTOKOLOAREN XEDEA

Protokolo honetan ezartzen dira kide laguntzaileei aplikatu ahal zaizkien baldintzak, baldin eta kide laguntzaile izan nahi badute eta izateko onarpena jaso badute. Hala denean, kide laguntzaileak, kide sustatzaileekin batera, elkarlanean arituko dira planaren xede nagusia lortze aldera. Hori guztia planaren inspirazio-iturri diren printzipioen arabera egingo dute (printzipiook aurreko I. atalean jasota daude).

III. LANKIDETZA-GIDALERROAK

Kide laguntzailea pertsona juridiko bat baldin bada, hauxe egin ahalko du:

- Finantza Hezkuntzako Planeko kide laguntzaile izendapena berak antolatutako finantza-hezkuntzaren arloko ekimenetan erabili.
- Planeko kide laguntzaileen bilera guztietara joan.
- www.finanzasparatodos.es webgunean kide laguntzaileentzat erreserbatuta dagoen zonan sartu.
- Planeko kide laguntzaileei ekonomikoa ez den laguntza eskatu, bere jarduera garatzeko.
- Kasu zehatz batean, Finanzas para Todos marka bere prestakuntza-euskarrietan erabiltzeko baimena eskatu.
- Finantza-hezkuntzaren arloan egiten diren tokiko edo nazioarteko jardueri buruzko informazioa edo dokumentu esanguratsuak jaso.
- Kide laguntzaileen batzarrean parte hartu, hori baita planeko kide laguntzaileen ordezkaritza-esparrua.

Kide laguntzailea pertsona juridiko bat baldin bada, hauxe egiteko konpromisoa hartzen du:

- Finantza-hezkuntzaren arloko ekimen bat Espainian garatzea.
- Finantza-hezkuntzaren arloko ekimenetan aplikatu behar den Jardunbide Egokien Kodean ezarritakoa betetzea.
- Sustatzaileek eskatzen dioten finantza-hezkuntzaren arloko ekimenei buruzko informazioa ematea.
- Sustatzaileei urtero bidaltzea finantza-hezkuntzaren arloan egindako jardueri buruzko memoria-txosten bat.
- Finantza Hezkuntzaren Egunean parte hartzea, bere baliabide materialen araberako jarduerak antolatuz eta gauzatuz.
- Eskatuz gero, Finantza Hezkuntzako Planeko zuzendaritza-erakundeen lan-saioretan parte hartzea, bai eta horretarako ezarri diren beste lantalde batzuetan ere.
- Ahal duen neurrian, beste laguntzaile batzuei laguntza ematea, lana ez bikoizteko eta ekintzen irismena eta malgutasuna handitzeko.

IV. FINANTZIAZIOA

Protokolo honek ez du eskatzen diru-kontraprestaziorik egiteko, ezta konpromiso juridiko zehatz bat hartu beharrik. Laguntzaileak bere gain hartuko ditu ekintzak egiteko behar diren kostuak.

V. FINANZAS PARA TODOS MARKAREN ERABILERA

Finanzas para Todos izenak eta markak Finantza Hezkuntzako Planaren irudi publikoa osatzen dituzte, eta Patenteen eta Marken Espainiako Bulegoan erregistraturik daude.

Laguntzaile izateko onarpena jasotzeak ez dio inolako baimenik emango laguntzaileari, ikur bereizgarri horiek erabil ditzan.

Hala eta guztiz ere, III. atalean jaso den bezala, kide laguntzaileak planeko kide sustatzaileei baimen zehatza eta espresua eskatu ahalko die, ikur bereizgarriak berak antolatutako finantza-hezkuntzaren arloko ekimen batean erabiltzeko.

VI. LAGUNTZAILE IZATEARI UZTEA

Honako hauek dira laguntzaile izateari uzteko kausak:

- Kide laguntzaileak III. atalean ezarritako lankidetzeta-gidalerroen arabera ez jokatzeari. Hala denean, kide horri ohartarazpena egin eta gero, kide sustatzaileek eskubidea izango dute laguntzaile izateko izendapena kentzeko. Kide horrek kide laguntzaile izateari utziko dio sustatzaileek jakinarazpena egin bezain laster. Horrez gain, etorkizunean ezin izango du izendapen hori erabili finantza-hezkuntzaren arloko ekimenetan.
- Kide laguntzaileak izendapen hori bertan behera uzteko erabaki irmoa hartzea; eta, kide sustatzaileei idatziz jakinarazi beharko die betiere, gutxienez bi hilabete baino lehenago. Sustatzaileek interesdunari jakinarazten diotenean jakinarazpena jaso dutela, borondatezko bajak ondorioak izaten hasiko da. Baja horrek ez die inolako eskubiderik sortuko alderdiei, kalte-ordainik edo konpentsaziorik jasotzeko.

VII. PROTOKOLOA ALDATZEA

Protokolo hau kide sustatzaileek aldatu ahalko dute, honako xede hauek betetzeko beharrezkoa baldin bada: xedea hobeto betetzeko, edukian eragina sortzen duten legealdaketetara egokitzeak, edo Espainia kide izaten duten nazioarteko erakundeen edo organismoen printzipioak edo gomendioak gehitzeko. Kide laguntzaileak testu berriari atxikita jarraituko du, berariaz uko egin ezean; eta uko egiten baldin badu, horrek berekin ekarriko du borondatez laguntzaile izateari uztea.

VIII. KONFIDENTZIALTASUNA

Kide laguntzaileak isilpekotasun eta konfidentzialtasun osoa gordeko du, protokolo honetan bildutako prestazioak egitearen ondorioz ezagutu ahal dituen ezagutzei eta isilpeko informazioari dagokienez. Era berean, konpromiso hartzen du isilpeko daturik ez argitaratzeko edo hedatzeko, aurrez informazio horrek ukitzen duen alderdiaren baimen espresua lortu ez badu.

Era berean, kide laguntzaileak konpromisoa hartzen du beraren mendeko edozein pertsonak klausula honetan ezarritako konfidentzialtasun-konpromisoa ezagut dezan. Pertsona horrek isilpekotasun eta konfidentzialtasun bera bete beharko du, Jardun Protokolo Orokor hau aplikatzean kide laguntzaileek berez ezagutu ahal duten edozein daturi dagokionez.

IX. INDARRALDIA

Protokolo hau 2018ko ekainaren 30etik aurrera aplikatzen hasiko da. Protokolo honek indarrean jarraituko du, kide sustatzaileen arteko lankidetzak hitzarmen batek Finantza Hezkuntzako Planaren garapena jarraitzea bermatu bitartean.

X. PROTOKOLOA INTERPRETATZEA

Protokolo hau interpretatzean edo aplikatzean zalantzak sortzen baldin badira, kide sustatzaileek ebatziko dituzte.

XI. LANKIDETZA HITZARMENEN ERREGIMEN IRAGANKORRA

Hitzaurrean aipatu diren lankidetzak hitzarmenak, hots, Finantza Hezkuntzako Planean parte hartzeko egun arteko mekanismoak, iraungitzat joko dira protokolo hau indarrean jartzen denean. Kide sustatzaileek uste dute hitzarmenak sinatu dituzten erakundeek kide laguntzaileak izateko eskakizunak betetzen dituztela. Hortaz, erantsita dagoen Jardun Protokolo Orokorari atxikitzeko dokumentua sinatu eta berehala kide laguntzailetzat joko dira.

FINANTZA HEZKUNTZAKO PLANA SUSTATZEKO JARDUN PROTOKOLO OROKORRARI ATXIKITZEKO DOKUMENTUA

Jaun/andrea:

NAN zenbakia:

Ordezkatzen duen erakundea (aurrerantzean, «erakundea»):

Kargua: erakundeko

Nik AITORTZEN DUT Jardun Protokolo Orokorraren edukia ezagutzen dudala,
eta ADIERAZTEN DUT erakundeak konpromisoa hartzen duela protokoloari
atxikitzeko eta bertan ezarritako printzipioak betetzeko.

.....(e)n, 2018koren(e)(a)n

Sin.:

Telefono-zenbakia:

Helbide elektronikoa:

